



Elkartasunez jositako herria

Otsailean Atxondo Harrera Herria bilakatu zenetik, 6 lagun daude Axpeko aterpetxean. Asteburuan Kulturartekotasun Eguna ospatuko dute, sostengu ekonomikoa lortzeko asmoz. • 4



'Margolaria', artistaren arima harrapatzen duen dokumentala

Musika | Mikel Urdangarin musikari zornotzarrari buruzko 'Margolaria' pelikula asteburu honetan helduko da pantaila handietara. Zinemaldian harrera ona izan ostean, gaur, martxoak 22, Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Madrilan proiektatuko dute. Durangaldera geroago helduko da. Zornotzan, esaterako, apirilaren 9tik aurrera ikusi ahalko da. • 2-3.

83 indarkeria kasu aztertu zituzten iaz Durangaldean

Durangaldea | Eskualdean biztanle gazteen artean indarkeria matxistak duen presentzia "kezkgarria" dela azaldu dute Amankomunazgoko arduradunek. Indarkeria matxistaren erasotzaileen %36k eta eraso jasanduten emakumeen %43k 30 urte baino gutxiago dituzte. • 8



Egunero zabalik
Domeketan eta Jaiegunetan rabak
Astelehenetik ostiralera: Menu erdia 6€-tan
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak



XII. ARDO ETA DELIKATESEN FERIA
DURANGO ARDO SALTSAN MARTXOAK 30 2019

Logos for participating brands: a, saltsan, durango, onegin, LA TOSTADORA, NISSAN GAURSA.



***“Pelikularen muinean
klasiko bat dago:
egin ezazu maite
duzun hori”***

Gaur, martxoak 22, estreinatuko da zinema-aretoetan
'Margolaria', Mikel Urdangarin protagonista duen filma

ZINEA • ARITZ MALDONADO

Mikel Urdangarin da 'Margolaria' filmaren ardatza. Urte biko grabaketak pelikula bakarrean bildu ditu Oier Aranzabal zuzendariak. Zinema-aretoetako estreinaldiaren aurrean, tentsio puntu batez dagoela aitortu du musikari zornotzarrak.

Biluztu egin zara kamera aurrean.

Pelikula gehiago edo gutxiago gustatu ahal zaizu, baina dituen bertuteen artean, benetako istorio bat kontatzen duela aitortu behar zaio. Benetako elkarrizketak ditu, benetako pertsonaiekin. Urte bian, taldeak ordu piloa grabatu zituen, eta momentu ikaragarri on piloa kanpoan geratu dira, halabeharrez. Galbahe horrek, baina, nekarrak ekarri du, nire ustez.

Bestalde, ni oso zinemazalea naiz, baina ez naiz aktorea. Ez dit ahalegin berezirik eskatu pelikula, ni izatea eskatu didatelako. Talde potentea osatu dugu, eta kamera aurrean barik, pertsonen aurrean sentitu naiz.

Ariketa zintzoa da, 'Margolaria' artistaren bizitzako kontrasteak erakusten dituen.

Oreka eta musikariaren bizitza kontrajarrira daude. Isiltasuna bera soinua bat da kantu baten barruan. Pinturan legez mihise zurian, isiltasunean ere notak jartzen dira. Pelikulan alderaketa hori egiten da. Hasieran, kontzertutik nator, ehunka lagun aurrean egotetik, etxeko bakardadera. Jendeak fokuen indarpean ikusten du artista, show baten barruan, baina hori errealitate labur bat da, izan ere musikari lotutako ordurik gehienak, nire kasuan, bakardadean pasatzen ditut, sortzen, edo praktikatzeko. Baina jendea ez da geratzen atzean dagoen horregaz, eta pelikulak, hain zuzen ere, hor asmatzen du, atzealde hori erakusten.

Sortzailearen bakardadea erakusten du 'Margolaria'-k, baina sortzaileen artean ehuntzen diren sareak ere bai.

Erakusten du, nire kasuan, badaukadalako sarea. Nire musikariak, lagunak eta bidaideak ditut. Pelikulan Mikel Urdangarin bakarti bat ere agertzen da, etxeko irudietan, edo bidaietan. Bakarrik egotea gustatzen zait, baina lagunez inguratuta egotea ere bai. Ez daukat nire burua bakartitzat, baina gustatzen zait, eta badakit bakarrik egoten, gainera. Baina, aldi berean, nire sarea dut. Bakarlaritza deitu didate hasieratik, baina hasierako kontzertuetatik lagunduta egon naiz. Oierrek ni aukeratu ninduean, ezagutzen zuen nire backgrounda, bazuen bidaian topatu ditudan lagun berri: Nika Bitchiashviliz, Rafa Rueda... Badaki sare humano hori existitzen dela eta kontatu gura duen diskurtsoa aberastuko duela horrek. Nik esandakoak besteko garrantzia



du eurek pelikulara dakartenak, edo gehiago behar bada. Izan ere, pelikulakoa diskurtso koral bat da. Artistaren arima harrapatzea eta islatzea zaila da, eta horretan saiatu da Oier, bidean agertzen diren pertsonaien bidez. Hasieratik argi zuen ez zuela *biopic* bat egin gura. Nire baldintzetako bat ere bazen. Gure kantetatik abiatuta, munduko edozein txokotan ulertu daitekeen istorio bat kontatu dugu. John Potter musika kritikari ingelesak kokatzen du istorioa munduan, Euskal Herriaren eta Okinawaren arteko alderaketa egitean. Eta hori

“**Artistaren arima harrapatzea eta islatzea zaila da, eta horretan saiatu da Oier, hain zuzen ere**”

ederra da. Guk bizitzaz, kezkez, pasioaz... berba egin gura genuen, modu unibertsalean.

Zure jarraitzaile izan edo ez, gai unibertsalak tratatzen ditu dokumentalak.

Publikoak ni ezagutu barik sartzen da istorioan. Bere pasiotik bizitzen saiatzen den musikari bat da gaia. Ertz asko ditu pelikulak, baina hor badago muina, eta koraltasun bat. Muinean klasiko bat dago: egin maite duzun hori. 'Aita, ama, artista izan gura dut'. Egoera hori, hiru segundoko esaldi hori, milioika etxetan bizi izan da. Eta artista diodanean, izan daiteke kazetari, idazle, marrazkilari... bokaziozko beste edozein lan. Eta esaldi horrek dakarren erantzuna ikustekoa da. Gurasoek babes zaitzakete, edo ez. Eta babes ezak zelako kaltea eragin dezake? Igual ez duzu bizitza osoan berriro indarrak aterako horrelako zerbait egiteko. Horixe da pelikularen ardatza. Egoera klasiko bat da, baina zineman gutxi ikusi dena. Oier zinemazale amorratua da, eta ez du sekula ikusi egoera hori dokumental batean islatuta.

Euskal Herriko ikus-entzunezkoak publiko konkretu batentzat izan dira urteetan. Gutxitan ikusi da artistaren ikuspuntu hau, eta eskertzen diot Oierri saiakera, hor sartzera ausartu delako. Horixe da dokumentalaren muina: 'Saiatu zaitez zoriontsu izaten'. Eta dokumentalari esker nerabe batzuek bultzada hori jasoko balute pauso hori emateko? Ez legoke hori baino opari handiagorik.

Hamarkada bi baino gehiago dira musikatik bizitzeko erabakia hartu zenuenetik. Zer ikusten duzu atzera begiratuta?

“**Leonard Cohenen eta bion kantuekin osaturiko zuzeneko grabaketa kaleratuko dugu aurten**”

Gauza bat esango dizut. Erabaki hori hartu nuenetik, bidea ez da erraza izan. Asko maite duenak asko sufritzen du, eta pasio bati lotuta bizitzeak horixe dakar. Dena ez da gozamina, baina gozatzeko aukera ere izan dugu. Izan ere, gozamenik ez badago, eta pasioa sufrimendu iturri soila bilakatzen bada, akabo.

“**Asko maite duenak asko sufritzen du, eta pasio bati lotuta bizitzeak horixe dakar. Dena ez da gozamina**”

“**Musika modu amateurrean bizi duzunean, %100 da gozamina; profesionalentzat, ez**”

Erabaki horrek beste modu batera biziko ez nituenak ekarri dizkit: taula gaineko sentsazioak, harremanak... Erabaki horri esker, mundu magiko baten parte izan ahal naiz.

Musika modu amateurrean bizi duzunean, %100 da gozamina. Modu profesionalean bizi duzunean, ostera, ez. Eta horretaz konturatu egin behar zara. Kontzerturik ez dagoenean, kezka bizi zara, hipoteka berdin-berdin ordaindu behar delako. Hogei urtean irauteko, gorabehera asko pasatu behar dituzu.

Onerako edo txarrerako, espazio handiko erabakia ere bada. Abesti berri bakoitza garrasi bat da, eta loreak jaso ditzakezu, edo ezer ez. Garrasi horrek oihartzunik eragiten ez badu, mina sortzen da. Muturreko panorama horretan, oreka topatzea oso gaitza da, eta sekulako ahalegina egin behar duzu onik ateratzeko. Ikasi egin behar da. Inoiz harturiko erabakirik inportanteena da niretzat, eta bizirik gaude, eta ez dut ilusioa galdu.

Zer geratzen zaio esateko Mikel Urdangarini?

Orain, filmearen promozioa egitea dagokit; proiektzio, solasaldi eta horrelakoak. *Margolaria*ren biragaz ere segituko dugu, udara arte behintzat. Horrez gainera, orain urte bi grabatu genuen bitxikeria bat kaleratuko dugu: Leonard Coheni Campos Eliseos antzokian egin genion omenaldia gau berezia izan zen, eta grabatuta daukagu; Cohenen eta nire kantuz osaturiko biniloa izango dena prestatzen gabilta.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Otsailaz geroztik, herritar talde bat beharizana dutenei laguntzen dabil Atxondon. Orain hilabete inguru, beste herrialde batzuetatik exiliatu behar izan duten pertsonen harrera herria bilakatu zen Atxondo. Orduetik, Axpeko aterpetxean dauden sei migratzaileekin lan integral bat egiteko asmoz, beharrezkoak diren laguntza hainbat kide, eta sentsibilizazio astea antolatu dute gainontzeko herritarrei proiektuaren berri emateko. "Errefuxiatuak ondo lekukotu dira herrian, eta, beraz, eurak aurkeztu eta euren egoera herrira zabaltzeko une aproposa dela uste dugu. Horregatik erabaki dugu sentsibilizazio aste hau antolatzea", adierazi du Mikel Corrales Atxondo Harrera Herriko kideak.

Sentsibilizazio astea

Eguaztenean eman zioten hasiera sentsibilizazio asteari, dokumental batez. Bestalde, gaurko, 17:00etarako, futbito partiduak antolatu dituzte, eta horien ostean, herriko

Zapatuan, egun osoko egitarau batez kulturartekotasun eguna ospatuko dute Atxondon

Helburua herritarren sentsibilizazioa eta sostengu ekonomikoa lortzea da

tabernetatik pintxo potean ibiliko dira. Bihar, kulturartekotasun eguna ospatuko dute. Goizean, Euska eta Senegal perkusio taldearen saioa egongo da, eta, 14:30ean, bazkaltzeko batuko dira. Arratsaldean, M'lomp Senegal taldearen dantza saioa egongo da. Domekan emango diote amaiera sentsibilizazio asteari. 13:00etan, herritarrek taloa dastatzeko aukera izango dute Apatako plazan. "Herritarren sentsibilizazioaz gain, ekintza hauekin sostengu ekonomikoa lortzea ere bada helburua, proiektuari bultzada bat emateko. Ekonomikoki gastu handia dakar eta laguntasun

Errefuxiatuen egoera ezagutu eta eurei laguntzeko asmoz, sentsibilizazio astea egiten dabilza Atxondon

21 eta 38 urte arteko sei gizonetako bizitokia dute Atxondo Harrera Herriari esker



Atxondo Harrera Herria dinamikako kideak errefuxiatuekin batera.

dena da beharrezkoa", aitortu du Corralesek.

Egun, 21 eta 38 urte bitarteko sei gizonetako daude Axpeko aterpetxean. Lau Senegalekoak dira eta bi, Txadekoak. Hala ere, Atxondo Harrera Herria dinamikako kideek ez dute baztertzen datozen asteetan jende gehiago bertaratzea. "Oraindik gure artean zehaztu barik daukagu zenbat errefuxiatu hartuko ditugun, baina hamar bat izango dira gehienek", jarraitu du Corralesek. Gainera, astero hainbat proposamen jasotzen dituztela aitortu du. "Esaterako, Durangon senegaldar bat kalean bizi dela esan digute, eta gure asmoa berari ere laguntzea da; hau da, beharizana dutenei laguntzea", gaineratu du. Bestalde, asiloa eskatu gura duten pertsonen laguntzea ere bada taldearen asmoa. "Eurek herrian geratu gura badute, posible den guztia egingo dugu Atxondon geratu daitezten", adierazi dute taldeko kideek.

Atxondo Harrera Herriko kideek ez dute baztertzen datozen asteetan errefuxiatu gehiago hartzea

Atxondoko herritarren erantzuna oraindik "oso ona" izan dela aitortu dute dinamikako kideek

Herritarren erantzun bikaina

Otsail hasieran herritarren aurrean dinamika aurkeztu zutenetik, hainbat atxondar lanean dabilza errefuxiatuei laguntzeko asmoz. Esaterako, fruta saltzaileak fruta eramaten die; zenbait baserritarrek, euren produktuak; herriko farmazialariak, botikak; eta hainbat herritarrek, arropak, besteak beste. Horrez gain, medikuarenera joaten eta asialdiko zenbait ekintza egiten ere laguntzen diete. "Egia esan, atxondarren erantzuna oso ona izan da orain arte. Baita udalarena ere, eta oso eskertuta gaude", amaitu du Corralesek.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko martxoaren 22a
17. urtea - 756. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bikam**
Bikam
Bikam

PEFC
www.pefc.es

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.
Maketazioa: Bea Sierrasumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Martxan dago Durangoko 7 ikastetxeetako jantokietan hondakin organikoak birziklatzen hasteko proiektua

3.000 ikaslek baino gehiagok bazkaltzen dute herriko hezkuntza zentroetan; sortzen diren gai organikoekin konposta egingo dute baserri batean



Durangoko ikastetxeetako jantokietan izango du oinarria egitasmoak. Irudian, Kurutziaga ikastolako ume eta gaztetxoak, bazkaltzen.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Durangoko Udalak finantzatuta, martxan dago herriko 7 ikastetxeetan hondakin organikoak sailkatzen hasteko esperientzia pilotua. 3.000 ikaslek baino gehiagok jaten dute egunero jantoki horietan, eta otorduetatik sortzen diren elikagaien hondarrak lekuko nekazari batek batuko ditu, gero bere ortuan ongari lez erabiltzeko. Momentuz, urtebeteko iraupena edukiko du.

Kurutziaga ikastolan ekin diote egitasmoari. Izan ere, orain urte bi bertan erein zuten proiektu honen hazia proba bat eginda, eta, beraz, badakite bidea zelan jorratu. Datozen egunetan gainerako ikastetxe guztietara hedatuko da ekimena.

Orain urte biko esperientzia IK4-Azterlanek gidatu zuten, Jaur-laritzak emandako diru-laguntza bati esker. Kasu honetan, udalak urtebeterako zerbitzu lez egin du kontratazioa. Zerbitzua gestio-natzeko, kooperatiba bat sortu dute hiru nekazari eta teknikari batek. Azken hau Ander Areitioaurtena da, IK4-Azterlanegaz 2017ko esperientzia aurrera eramane zuena. "Proiektuak 12 hilabeteko iraupena edukiko du. Sistemak zelan funtzionatzeko duen ikusteko balioko

du, ea posible den ikusteko", azaldu du Areitioaurtenak. Ekainean egingo dute lehenengo balorazioa.

Proiektu aitzindaria

"Estimaten dugu urtebetean 90 eta 100 tona artean batuko direla", nabarmendu du Areitioaurtenak. Bilketa Iñigo Etxebarria nekazariak egingo du, egunero, ikastetxe guztietan. Zentro bakoitzean kubo bi egongo dira; Etxebarriak garbiak utzi eta betetakoak jasoko ditu. Batutakoa Iurretako Santa Apolonia auzoan duen baserrira eramango du, konposta egiteko.



ANDER AREITIOAURTENA

"Hemen inguruan ez da horrelako esperientziarik egin"

Areitioaurtenaren esanetan, proiektu aitzindaria da Durangokoa. "Hemen inguruan ez da horrelako esperientziarik egin, eta Euskal Herrian ere oso gutxi", azaldu du proiektuaren jarraipena egingo duen teknikariak. Larrabetzun eta Usurbilen garatu izan dira antzekoak, baina Durangokoa tamaina handiagoa da.

Sentsibilizazioa

Birziklapenean jauzi handi bat egingo da Durangon ikastetxeetako egitasmoagaz. Baina, horrez



Iñigo Etxebarria nekazaria hondakin organikoak batzen, joan zen barikuan.

100

tona organiko

Proiektuak iraungo duen urtebetean zehar 90 eta 100 tona organiko artean batzea aurreikusi dute

gainera, badu zentzu hezitzaile bat ere, Aitziber Irigoras alkateak prentsa ohar bidez esplikatu duenez. "Birziklapena sustatu eta zabortegetara heltzen den hondakin kantitatea murrizteaz gain, gazteek gaur egungo kontsumo ereduaren inguruan hausnartzea bilatzen du". Areitioaurtenak esan du birziklapenean parte hartzen duten ikasleek zuzenean ezagutu ahalko dutela hondakin birbaltzearen garrantzia, urtean behin Etxeba-

rriaren baserriko konpost plantara joateko aukera eskainiko dietelako.

Durangoko ikastetxeek birziklapenaren aldeko pauso garrantzitsu bat emango dute. Urtebetera ikusiko da iraunkortuko den ala ez. Kasu horretan, herriko bilketaren ardura duen Cespa enpresak batu, eta udalak tonako ordainduko lioke nekazariari bere baserrian uzteagatik. Pauso garrantzitsu bat da, organikoaren bilketa herri osoan hastea aurreikusita dagoen urtean.

Saltsan sortu zutenetik 25 urte pasatu direla oroitu eta ospatuko dute Ardo Saltsanen

Martxoaren 30ean izango da ardo eta delicatessen azokaren 12. edizioa, Durangoko Landako Gunean



lazko irudiek erakusten duten lez, ardo dastaketetan parte hartzeko aukera egoten da.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

25 urte dira Durangoko Saltsan denda eta katerin zerbitzua sortu zutenetik, eta urtemuga ospatuko dute aurtengo Ardo Saltsan azokaren edizioan. Martxoaren 30ean izango da, Landako Gunean. Saltsaneko Iñaki Uribe gidatuko du, Juanpe Azkarate eta Roberto Sarriugartegaz batera, hamabigarrenez dagoeneko. Herriari eta ostalaritzari begira garatutako ekimen bat dela nabarmendu du Uribe. "Orain dela 12 urte etorritako jende gaztea orain ere bada torrela ikusten dugu. Gure asmoa beti izan da erakustea, kultura bat sortzea, eta uste dut lortu dugula".

Ardo eta delicatessen eskaintza zabalago da azokan. Upategien ardo anitzak, gaztak, Euskal

Sagardoa, Asturiasko ostrak, Sierra Morenako urdaiazpikoa... Durangaldetik, esaterako, Barabeltz izeneko berakatz beltza ekarriko dute Elorriotik, eta algak Mañaritik. Alga Artean enpresakoekin

Uribe: "Gure asmoa beti izan da erakustea, kultura bat sortzea, eta uste dut lortu dugula"

platerak sortzen dabil Uribe Eguen-saltsan ekimenean, eta Ardo Saltsanera gonbidatu ditu.

Udalak Landako Gunea utziko du azokarako, eta beste hainbat enpresak ere babesa erakutsi dute.

Durangoko EH Bilduk osatu du hautagaien zerrenda, Garrastatxu alkategaia babestuko duena

Zerrendaburuak uste du "esperientzia, parte-hartzea eta ilusioa" dakartzala koalizioak aukeratutako taldeak; gobernatzeko "aukera sinesgarri bat" dela nabarmendu du



EH Bilduren zerrendan lehen 12 postuetan doazenak, talde argazkian.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako zerrenda osatu du EH Bilduk, eta lehen hamabi postuetan doazenen berri eman du, momentuz. Osatutako taldeak "esperientzia, parte-hartzea eta ilusioa" dakartzala adierazi du Ima Garrastatxu alkategaia.


Alde batetik, "azken lau urteetan egindako lanaren jarraitkortasuna" islatzen duen taldea dela dio EH Bilduk. Parte-hartzea "governatzeko ikur" izango dela eurentzat gaineratu du, eta auzorik auzo eginiko lana "politika

ulertzeko modua" dutela. Zinegotzi izandako Iker Urkiza eta Aritz Bravoz gainera, herri mugimenduko hainbat pertsona ere batu dira zerrendara. Urkiza izango da zerrendako bigarrena, Ane Abanzabalegi kazetari eta AEKko irakaslea hirugarrena, eta Bravo laugarrena. Jarraian doaz Mariam Bilbatua Mondragon Unibertsitateko irakasle ohia, Juan Antonio Bueno filologo eta ile-apaintzailea, Garazi Errasti abokatua, Nagore Lozano Maristetako irakaslea, Unai Lizarralde psikologian lizentziatua, Jabi Zubizarreta Laboral

Kutxako langilea, Mireia Nieto tabernari eta feminista, eta Eloi Landia arkitektoa.

Governatzeko gaitasunaz berba egin dute oharrean. "Aukera sinesgarri bat, esperientziaduna eta profesionala, Durango beste modu batean gobernatzeko eta herria hobetzeko aukera bat merezi duena".

Bestalde, Aldundirako hautagaiak aurkeztu ditu EH Bilduk. Zerrendaburu Beña Ildardia galdakoztarra izango da, eta zerrendan egongo da baita ere Urko Lopez zinegotzi zornotzarra.



Aitor Loiola izango da EH Bilduren alkategaia Mallabian

Aitor Loiola Zinkunegi izango da Mallabiko EH Bilduren alkategaia udal hauteskundeetan. Loiolak 58 urte ditu eta irakaslea da 1993tik, Bilboko Kirikiño ikastolan.

Alkategaia aukeratzeko EH Bilduk urtarrilean egindako bar-

ne prozesu parte-hartzailean, hautagai bakarra aurkeztu zen. "Mallabiko EH Bildu taldeetik jaso dudana babesa ezinbestekoa izan da erabakia hartzerako orduan", azaldu du Loiolak. 2007tik 2011ra alkate izan zen.

Korrikaren inguruko aurkezpena egingo dute, gaur, Mallabiko Kontzejuzarrean

MALLABIA • J.D.

21. Korrika gero eta gertuago dago eta Mallabian motorrak berotzen dabilta egun horri begira. Gaur, 18:30ean, herritarren aurreko aurkezpena egingo dute Kontzejuzarrean, Mallabiko Korrika Batzordeak antolatuta, eta herrian egingo dituzten ekintzak azalduko dituzte. Ma-

llabiko ume musikariek emanaldia eskainiko dute, kilometroa erosi dutenekin familia argazkia aterako dute eta Photo Call bat egongo da. Luntx bat ere prestatuko dute bertaratzen diren denentzat. Korrika 21 apirilaren 13an igaroko da Mallabitik. Aurreko egunean Korrika Txikia egingo dute.

Otxandioko Udalak teknikari bat kontratatu du, lehenengoz, berdintasun arloa lantzeko

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Udalak berdintasun teknikari bat hartu du, lehenengoz, arlo horretako politikak aurrera eramateko eta etorkizunean sortu daitezkeen beharrak asetzeko. Momentuz, astean behin joaten da Otxandiora, eguaztenetan.

Hainbat zeregin egongo dira bere ardurapean. Alde batetik, barrura begirako lanen artean, udaleko arloetan antolatutako ekintza eta politika denetan genero ikuspuntua barneratuta dagoela segurtatzea izango da bere arduretako bat. Horrez gainera,

besteak beste, udalean garatzen den Berdintasunaren Plan Estrategikoa sustatuko du.

Kalera begira

Kanpora begirako zereginen artean, arlo askotako sentsibilizazioa lantzea, herrian dauden emakumeen elkarteei laguntzea, eurekin lankidetzan aritzea eta, oro har, herriko emakumeek gizartearen zein politikan duten partaidetza bultzatzea dira teknikari berriaren arduretako batzuk.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Orain lau urte zabaldu zuten lurretan ZAER MOTOR, eta, denboragaz, bere eskaintza handitzen ari da. Aurten SUV Citroen C5 Aircross autoa ekarri dute, nobedadez beteta datorrena. Erosotasuna du ardatz, eta aukera anitzak eskaintzen ditu. Xehetasunak Arkaitz Urigoitia eman dizkigu, Eibarren bizi arren jaiotzez durangarra den ZAER MOTOReko gerenteak.

Auto berria ekarri duzue lurretan duzuen saltokira. Zer ezaugarri ditu?

Comfort klase barrukoa da SUV Citroen C5 Aircrossa. Erosotasuna da bere ezaugarri nagusia. Gaur egun gehien saltzen den auto ereduak da SUV deitzen den hau.

Abantaila eta nobedade ugari dakartzaz autoak.

Beste SUV autoekin alderatuta, abantaila bat dauka ume bi dituzten familientzat. Izan ere, hiru jesarleku independente ditu. SUV honek ume biez gainera atzean beste pertsona bat ere joateko aukera ematen dizu; beste edozein SUVek ez dizu hori eskaintzen. Bestalde, suspentsio hidraulikoak ditu, eta arlo teknologikoen abantailen artean, Highway Driver Assist sistema nabarmendu daiteke.

Zer da sistema hori?

Kasik gidatze autonomoa daukala esan genezake. Aurreko autoagaz distantzia bat markatzen diozu, eta zure autoa bakarrik joaten da, lerroei jarraituta. Kamera bat dauka lerro horiek ezartzeko. Bolantea

“Erosotasuna da SUV C5 Aircross auto berriaren ezaugarri nagusia”

lurretako ZAER MOTOR saltokian SUV estiloko Citroen autoa ipini dute salgai, bere gaman nobedade ugari dakartzana



“

Abantaila bat dauka ume bi dituzten familientzat. Izan ere, hiru jesarleku independente ditu”

bera bakarrik joaten da, lerroei jarraituta. Aurrekoa 80 km/h abiaduran badoa, zuri ez dizu gehiagora joaten uzten.

Maletategia ere garrantzitsua izaten da auto batean. Zelakoa dauka?

Maletategiak 720 litrorainoko edu-

kiera dauka, *Best in Class* edo bere klaseko onena dela esan daiteke. Edukieraz aparte, mugikortasun handia dauka. Gainera, jesarlekuak behera ekarriz gero, atzeko zati guztia laua geratzen da. Beraz, gazteentzat ere egokia da. Ez dago publiko zehatz bati bideratuta, eta hori da autoak duen onena. Aukera anitzekoa da.

Estetikoki begiratuta, zer aukera eskaintzen du?

Koloretan gama zabala dauka, eta koloreak nahasteko aukera ere ematen du. 30 konbinazio desberdin egin daitezke.

Zelako harrera izan du?

Oso harrera ona izan du. Estetika aldetik gustukoa du jendeak eta probatzerakoan benetan nabaritzen ari dira autoaren ezaugarri on guztiak.



Goian, ezkerretik hasita, Arkaitz Urigoitia gerentea eta Mikel Roman lurretako saltokiko salmenta arduraduna.



ZAER MOTOR

Padureta, 3 • Iurreta - Tel.: 946 200 284
Apalategi, 1 • Eibar - Tel.: 943 707 033

2018an indarkeria matxistaren 83 kasu aztertu ditu Amankomunazgoak, 2017an baino 7 gehiago

Durungaldean biztanle gazteen artean indarkeria matxistak duen presentzia "kezkarria" dela jakitera eman dute prentsa oharrean. Erasotzaileen %36k 30 urte edo gutxiago dituzte; erasoen %87 genero indarkeriagaz lotuta daude

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
2017 amaieran, emakumeen kontrako indarkeria kasuetan Durungaldean jarduteko eta koordinatzeko bigarren protokoloa sinatu zuten Abadiñoko, Berrizko, Durangoko eta Elorrioko udalek, Osakidetzagaz, Ertzaintzagaz eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoagaz elkarlanean.

Aste honetan prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez, 2018an indarkeria matxistaren biktima izan ziren 83 emakume-

Amankomunazgoan indarkeria salatu duten emakumeen %54 bertakoak dira

ren kasuak koordinatu zituzten erakunde sinatzaileek Amankomunazgoagaz batera, 2017an baino 7 gehiago. Erasorik gehienak, %87, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren testuingurukoak dira, %7 testuinguru sentimentaletik kanpo gertatutako erasoak dira, eta %6, sexu erasoak.

Gazteekin kezkatuta

Bestalde, Durungaldean biztanle gazteen artean indarkeria matxis-



2017an sinatu zuten protokoloa.

Erasorik gehienak, %87, genero indarkeriagaz lotuta daudela jakitera eman dute

tak duen presentzia "kezkarria" dela jakitera eman dute oharrean udaletako eta Amankomunazgo kideek, izan ere, indarkeria matxistaren erasotzaileen %36k eta eraso jasan duten emakumeen %43k 30 urte edo gutxiago dituzte. Horrez gainera, adierazi

dutenez, Amankomunazgoan 2018an indarkeria matxista salatu duten emakumeen %54 bertakoak dira, eta %46, atzerritarrak. Erasotzaileen kasuan, ostera, %64 udalerrikoak, probintziakoak edo estatukoak izan dira, eta %36, atzerritarrak.

Energia berriztagarriekin hornitzeko apustua egingo dute EH Bilduk gobernaturako udaletan


Durungaldeko bost udalek argindar kontratu bateratua esleitzeko hitzarmena sinatu dute

DURANGALDEA • M.Z. / M.O.

"Hitzetatik ekintzetara" pasatzeko asmoa agertu dute. Energia berriztagarriekin hornitzeko apustua egingo dute EH Bilduk eskualdean

governaturako udaletan. Atxondo, Izurtza, Mañaria, Otxandio eta Zaldibarko udalek argindar kontratua batera sinatzeko hitzarmena sinatu zuten joan zen astean; horren

arabera, Zaldibarko Udalaren esku utziko dute kontratazio prozeduraren gestioa. Tramitazioan aurrezteaz gain, prezio hobea lortzea ere bada indarrak batzearen helburua.



Atxondo, Otxandio, Zaldibar, Izurtza eta Mañariko alkateak hitzarmena sinatzen.

Beraz, energia berriztagarrien hornitzaile bati emango diote euren udaletara argindarra ekartzeko ardura. "EH Bilduk energia berriztagarrien eta jasangarritasunaren aldeko apustu irmoa egiten du. Eta, udaberriari argindarraren erosketari prozesua amaituta, Durungaldean EH Bilduk gobernatzeko duen udalak energia berriztagarriez hornitzea espero dugu", adierazi dute oharrean. Esperantza dute, ze, beti ez da ondo irten. Otxandioko Udalarena da adibideetako bat. Iaz esleitu zuen energia berriztagarriekin hornitzeko kontratua, baina Iberdrolak helegitea ipini zuen. EH Bilduren esanetan, ezin izan dute prozesuan aurrera egin, eta, hori dela eta, beste lau udalekin elkartu dira zerbitzua lortu ahal izateko.

Elorriko, iaztik martxan

Elorriko Udalak ere iaz egiten zuten energia berriztagarrien adjudikazioa, eta martxan jarri ahal izan zuten. Gaur egun, Goiener kooperatibak eskaintzen du zerbitzua herriko instalazio publikoetan.



Labainkaden aurkako tratamendua ematen dabilza Elorriko Alde Zaharrean

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Iaz hasitako bideari jarraituz, Elorriko Udala Alde Zaharreko zoruaren zati bat garbitzen dabil, eta baita herrigunean labainkaden aurkako tratamendua ematen ere. Iaz plaza

Frontoiko eta elizpeko mailak ere garbituko dituztela jakitera eman du Elorriko Udalak

ingurua, Berrio Otxoa kalea eta basilika atzeko aldea garbitu zituzten, eta orain gauza berbera egiten dabilza Erreka Kalean eta Kanpokalen. Behin lan horiek amaituta, frontoiko eta elizpeko mailak ere garbituko dituztela jakitera eman dute udaleko kideek.

Elorriko brigadako langileak dabilza garbiketarekin lan horiek egiten. Garbiketarako, iaz erositako marteriala erabiltzen ari dira.

Garaiko Landara eta Lorezaintza Azokarako eguna zehaztu dute

GARAI • M.O.

Landara eta Lorezaintza Azokarako eguna zehaztu dute antolatzailerak. Apirilaren 14an izango da, domekaz, eta dagoeneko ekimenaren zuzendarren edizioa izango da. Urterik urte hazten dabilen azoka da. Gainera, produktuez gain, beharrerako tresneria ere egongo da salgai.

Udalak, Urkiola Landa Garapenerako Alkartek eta Trumoitte kultur elkarteak antolatzen dute azoka, eta nagusien elkartearen zein Nirea proiektuaren laguntza edukiko dute.

Osasun gida

anboto

Ginekologia
PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 155/17



HOBETU
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA
Podologia

AINHOA ELORZA
Podologia

NEREA RODRIGUEZ
Podologia

*Kiropodia, onikopatia,
alterazio dermatologikoak
eta ibilerako alterazioak*

Monagotorre, 4 behea DURANGO
946 203 630

Odontologia
PSE: 145/13



clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09



AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11



JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Optometria
PSE: 162/13



keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63



UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**

Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

**Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO**
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

Apirilean hasiko dituzte Zelaieta oinezkoentzat egiteko lanak; obrek zortzi hilabete iraungo dutela aurreikusten du udalak

2019ko aurrekontuen inbertsiorik garrantzitsuena izango da obra hau; 970.000 euroko partida bat gorde du udalak proiektu hau finantzatzeko



2020ko San Blasetarako prest eduki gura dute.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Apirilean hasiko dira Zelaieta eraberritzeko lanak, eta zortzi hilabete iraungo dutela aurreikusten du Abadiñoko Udalak. Guztira, 1,7 milioi euroko aurrekontua izango dute obrek. Aurrekontu berrietan 995.000 euroko partida bat dago

gordeta inbertsioetarako, eta horien zati handi bat, 970.000 eurokoa, Zelaieta oinezkoentzat egiteko lanetarako izango da. Gainontzeko zatia 2018ko partidakoa da.

Hainbat aldaketa eragingo dituzte lanek. Besteak beste, Zelaietako erdigunea oinezkoentzat prestatu-

N-636 errepidetik datozen autoei sarbidea emango dien biribilgunea egingo dute Aita Kurutzekon

ko dute, espaloiak handitu egingo dituzte, eta saneamentu eta argiteria sareak berritu. Bestalde, Aita Kurutzeko bidegurutzean, N-636 errepidetik datozen autoei sarbidea emango dien biribilgunea bat egiteko aprobetxatuko dute. Pasa den astean egindako ezohiko osoko

bilkuran onartu zuten aurrekontu berria, Abadiñoko Independenteen eta EAJren aldeko botoekin. EH Bilduk aurka bozkatu zuen.

Ezohiko bilkuran onartu zuten aurrekontua, AI eta EAJren aldeko botoekin; Bilduk aurka bozkatu zuen

300.000 euro gehiago

Aurrekontu berria 10.428.431 eurokoa izango da, aurrekoa baino 300.000 euro gehiagokoa. Bestalde, 2018ko aurrekontuaren soberakinak bestelako lanak egiteko erabiliko direla adierazi du Jose Luis Navarro alkateak. Besteak beste, jolasguneen estaldura, Traña-Matie-nako tren geltokiko aparkalekua, Mendiolako errepide ondoko erre-kari eusteko horma eta futbol zelai-ko aldagela berriak egiteko. Horrez gainera, 25.000 euroko partida bat adostu dute inbertsioen atalean, Abadiñoko fondo bibliografikoak hobetzeko. Gizarte Ongizateko partida, oster, 100.999 eurokoa da; hala ere, "beharrizan sozialei erantzuteko beharra" egonez gero, handitu egin daitekeela adierazi du alkateak.

Zaldibarko 18-34 urte bitarteko gazteen %18,2 bizi dira emantzipaturik, udalaren ikerketa baten arabera

Ikerketa beraren arabera, etxebizitzaren erabilera sustatzeko "ohikoak ez diren" bideak sustatzea aholkatzen da

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko Udalak metabolismo demografikoa eta etxebizitza beharra aztertu ditu dossier batean. Besteak beste, Zaldibarko gazteen emantzipazio maila baxua nabarmentzen du txostenak. Izan ere, 18-34 urte bitarteko gazteen %18,2 baino ez dira bizi gurasoena ez den etxebizitza batean. Bide horretan sakontzeko, biztanleria gaztea egonkortzeko estrategiak garatu behar direla nabarmentzen da txostenean. Datu modura, 2011-2017 bitartean 300 gaztek Zaldibar utzi zutela nabarmentzen da, migrazio saldoa positiboa izan arren.

Bestalde, etxebizitzaren erabilera sustatzeko, norbanakoen artean ohikoak ez diren bideak sustatzea aholkatzen du txostenak. "Etxebi-

zita kooperatiba bat sortzea edo udal administrazioaren eta agenteen arteko elkarlana indartzea dira aukera batzuk", dio txostenak.

2011-2017 bitartean 300 gaztek Zaldibar utzi zutela nabarmentzen du txostenak

Krisi ekonomikoa, muinean

Bide batez, 2008ko krisi ekonomikoak herrian izandako eragin negatiboa azpimarratzen du ikerketak. Adierazle sozioekonomikoek genero desoreka handia adierazten dute, gainera.



Gazteen emantzipazio maila baxua da Zaldibarren.

Animaliak eduki eta babestea arautzen duen ordenantza eguneratu dute

IZURTZA • J.D.

Izurtzako azken udalbatzarrean, hasierako onarpena eman zioten animaliak eduki eta babestea arautzen duen ordenantzari. Aurretik zegoena oinarri moduan hartuta, egu-

Batez ere, ordenantzak jasotako arauak hausten dituztenentzako isunak zehaztu dituzte

neratu egin dute. Batez ere, ordenantzak jasotako arauak eta baldintzak hausten dituztenei bideratutako isunak zehaztu eta gehitu dituzte. Arau hausterik larrienak 15.000 euroko isunera heldu daitezke.

Lan eskaintzak dituzten 12 enpresak parte hartuko dute Zornotzako Enplegu eta Formazio Azokan

Langabeei, gazteei eta gurasoei zuzendutako hitzaldiak eta tailerrak egongo dira, martxoaren 28an, Zelaieta Zentroan

tria arlokoak, zerbitzuetakoak... hainbat arlotakoak izango dira", gehitu du. Interesatuta daudenek informazioa jaso eta euren curriculum aurkeztu dezakete. Enpresa bakoitzak bere postua izango du. Azoka 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik.

Gazteei begirako hitzaldi baten helburua ikasleak adar zientifikora gerturatzea da

Formakuntza tailerrak

Ikasle gazteei bideratutako postuak ere izango dira: Lanbide Heziketako bederatzi zentrok, bost unibertsitatek eta bost hizkuntza zentrok postu bana izango dute azokan. Horrez gainera, goizean zehar askotariko tailer eta hitzaldiak egongo dira. Esaterako, gazteak zientzia arloko ikasketetara gerturatzea da hitzaldietako baten helburua, "gero eta gazte gutxiagok" aukeratzen dutelako adar zientifikoa, Martiarturen esanetan.

Gurasoei zuzendutako mahai-inguru bat ere prestatu dute, 17:30erako. EHUko eta Zulaibar Lanbide Ikastegiko ordezkariak parte hartuko dute, besteak beste.



Esti Martiartu Enplegu eta Ekonomia Sustapenerako zinegotzia eta Mirian Arriaga Gazteria arloko teknikaria, azokaren aurkezpenean.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Enplegu eta Formazio Azokaren bigarren aldiak arlo bi landuko ditu martxoaren 28an. Batetik, lan bila dabilen eta enpresen arteko topagunea izan gura du. Bestetik,

lan mundurako orientazioa eta aholkularitza eskaini gura dizkie gazteei. Arlo bietako 30 stand inguru egongo dira Zelaieta Zentroan.

Enplegu arloari dagokionez, Zornotzako eta inguruko 12 enpresak

Enpresa bakoitzak bere postua izango du eta interesatuek curriculum aurkeztu dezakete

parte hartuko dute. "Datozen enpresek lan eskaintzak izatea bilatu dugu", azaldu du Esti Martiartu Zornotzako Udaleko Enplegu eta Ekonomia Sustapenerako zinegotziak ekimeneko aurkezpenean. "Indus-

Martxan ipini dute langabeei laneratzeko laguntza emateko II. Plana

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Aurten ere, inklusio soziolaborealerako laguntza plana abiatuko du udalak, gutxienez 25 iurretarren gizarteratzea eta laneratzeko. Laz egin zuten lehenengoz, eta parte hartu zuten 23 pertsonetatik erdiek lan kontratua lortu zuten. Banakako 169 saio eta taldekako 10 egin ziren.

laz parte hartu zuten 23 pertsonen erdiek kontratua lortu zuten, inklusio plan honen bidez

Pertsonengan oinarritutako inklusiorako laguntza planak garatzen ditu egitasmoak, eta teknikarien tutoretzapean egiten da, bakoitzaren premien arabera lan eginda. Lana bilatzeko teknikak, laguntza psikosoziala eta baliabideei buruzko informazioa landuko dituzte, besteak beste. Herritarren Arretarako Zerbitzuan aurkeztu daiteke eskabidea.

Gazte sahararrekin lotutako proiektu batean parte hartzen dabil Eñaut Aiartzaguena iurretarra

Egunotan kanpamenduetara egindako bidaietan murala margotu du lanbide eta formakuntza zentro bateko horman

IURRETA • JONE GUENETXEA

Eñaut Aiartzaguena Tindufeko kanpamentuetan (Aljeria) egon da egunotan. Gasteizko SEADen lagunen elkarteagaz, Bizkaiko Urtxintxa Eskolagaz eta Arduradun Eskolagaz batera proiektu batean parte hartzen dabil iurretarra. Saharar kanpamentuetako scoutekin hurrengo urteetara begirako plan estrategikoa diseinatzen laguntzen dabil. "Aiungo eskualdean hezitzaileei formakuntza ematen

riaren familiagaz egon zen Aiartzaguena. "Zentro horretan gazteei lanbideak erakutsi eta lan aukerak eskaintzea dute helburu. Ikastetxe arduradunaren etxean nen-

goela, marraztea gustuko nuela esan nion, eta murala margotzeko eskatu zidan", dio iurretarrak. Horma irudia margotzeko espraiak eta material guztia Igorren bizi diren

saharar batzuen bidez bidali zituen Aiartzaguenak, furgonetan, kanpamentuetara heltzerakoan material guztia prest izateko murala margotzeko.

Murala margotzeko materiala lgorreko saharar batzuen bitartez bidali zituen Aiartzaguenak, furgonetan

hasi ginen. Proiektu batzuk bazeuden arren, epe luzerako plana diseinatzeke beharra ikusi genuen".

Murala margotu dute

Aurreko bidaietan, lanbide eta formakuntza zentro bateko zuzenda-



Eñaut Aiartzaguena Tindufeko kanpamentuetan murala margotzen.



Formakuntza saioak.

Gutxienez orain 28.000 urte Mañarian bizi izan zen hartz baten garezurra ikusi daiteke Bilboko Arkeologi Museoko erakusketan

Leize-hartz espezieko eta tamaina handiko heldu batena da; adituek azaldu dutenez, 400 bat kilo edo hortik gora izan zitzakeen hartzak

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Bilboko Arkeologi Museoa animalia prehistorikoen gaineko erakusketa berri bat ikusi daiteke uztaile bitartean. Askotariko animalien hezur eta fosilen artean, Mañariko Askondo kobazuloan aurkitutako hartz baten garezurra dago.

Jean Serrés espeleologoak aurkitu zuen garezurra Mañariko Askondo kobazuloan, 1963an. Leize-hartz espezieko animalia batena da eta milaka urte ditu, Asier Gomez paleontologoak eta erakusketako

Leize-hartza ez da hartz arreagaz nahastu behar; espezie desberdinak dira

komisarioak argitu duenez: "Ez da garezurraren datazio zuzenik egin, baina jakin badakigu leizetako hartz orain 28.000 urte desagertu zela Europan. Beraz, gutxienez adin hori du".

Hartz "handia"

Garezurraren eta letaginen tamaina zein hortzen egoera aztertuta, beste ondorio batzuk ere atera dituzte adituek. Esaterako, hartz "handia" zela. "Agian Grizzly hartz baten tamainakoa zen, eta 350 edo 400 bat kilo izango zituen, edo hortik gora", uste du Gomezek. "Baina pisua zehazteko, ikerketa zehatzagoak beharko liriateke", zehaztu du.

Espezie hori ez da hartz arreagaz nahastu behar, Euskal Herriko azken hartz espezieagaz. Ez dira berdinak, baina eboluzioan milioi bat



'Lehoiak elurretan' izeneko erakusketaren parte da Mañariko hartzaren garezurra, eta uztailearen 14ra bitartean egongo da ikusgai asteko egun denetan. ARKEOLOGI MUSEOA

urte atzera eginez gero, "aitzindari komun" bat aurkituko litzatekeela esan du Gomezek: "Nolabait, lehengusuak izango liriateke". Arkeologi Museoko erakusketa uztailearen

Erakusketa ezagutzeko, bisita gidatuak egingo dituzte; euskarazkoa martxoaren 27an da

14ra arte egongo da zabalik. Bisita gidatuak ere egingo dituzte: martxoaren 27an, euskaraz; eta maiatzaren 15ean, gaztelaniaz.



1963an, Mañariko Askondo koban aurkitu zuten leize-hartzaren garezurra. GEMA ESPELEOLOGIA TALDEA

Berrizen, David Jimeno izango da Podemoseko hautagaia hauteskundeetan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

David Jimenok 40 urte ditu eta zerbitzuen sektorean egiten du lan. "Ilusioa dugu herritarrei politika egiteko beste modu bat eskaintzeko", esan du Jimenok. Jimeno ekintzailea da eta beragaz taldean arituko diren kideak mugimendu sozialetatik datozela adierazi dute alderdikoek. Bestalde, herriko arazoak ezagutzen dituen taldea dela aitortu dute.

Politika sozial baten bitartez, alderdiaren ardatz nagusia herritarren parte-hartzea bultzatzea eta herritarrak bizitzaren

erdian jartzea dela esan dute Berrizko Podemoseko kideek.



Migrazioaren eta errefuxiatuen egoerari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte Berrizen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herritarrak zenbait egoeraren aurrean kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko asmoz, migrazioaren eta errefuxiatuen egoeraren inguruko jardunaldiak antolatu dituzte Berrizen. Domekan, martxoak 24, Alas Rotas-Caminamos para crecer izeneko antzezlan eskainiko dute, 19:30ean, Berrizko Kultur Etxean. Bestalde, martxoaren 27an, Berrizko migratzaileen zentroko koordinatzaileak eta bertako hainbat kide euren bizipenak kontatuko dizkiete Olakueta aterpetxera bertaratzen direnei.



Berrizko migratzaileen zentroko kideetako batzuk. LEHIOR ELORRIAGA



ANBOTO, 19. alea.

Hareek denporak!

'Elorrixon zu ta ni, bi indar, bi argi'

40 urte bete dira Jarrai gazte erakundea jaio zenetik, eta Ernai antolakundea urtemuga hori gogoratzen dabil *Bulkada berrien garaia da* kanpainagaz. Bihar, Elorrioren, Durangaldeko Bulkada Eguna ospatuko dute, Aste Santuan Lemoan egingo den Gazte Topagunearen atarian.

Hain zuzen, 2002ko Gazte Topagunea Elorrioren egin zen. Abestia Berri Txarrak taldeak sortu zuen, *Bisai berriak* izene-

koa, askoren memorian *Elorrixon zu ta ni, bi indar, bi argi* esaldia utzi duena. Taldeak Durangoko Plateruenean zuzenean jo zuen orain aste bi, keinu bat eginez.

Elorrioko Topaguneari 21.000 lagun elkartzeko, eta irudian ageri denez, San Agustino landak kanpaleku erraldoi bihurtu ziren. Indar metaketa hori erantzun bat ere bihurtu zen, martxoan Segi erakundearen aurkako polizia operazioa egin zuten eta. **M.O.**

Politikan

Julian Rios Santtiago SQ-2D



Durangok erabakitze eskubidea du

Heldu da momentua. Aurrerapauso bat emateko ordua dela usate dugu, tokiko demokrazian aurrera egiteko, herritarren parte-hartzearen bidez. Durangarrek eskubidea dute euren udalerriko orainarekin eta etorkizunarekin zerikusia duten kontu garrantzitsuei buruz erabakitze.

Demokrazia ez da lau urterik behin botoa ematea. Kontzeptu hori iraungita dago. Gaur egun, udal politika parte-hartzean eta gardentasunean oinarritu behar da. Eta, horretarako, bitartekoak eta parte hartzeko sareak antolatu behar dira auzoetan, durangarren beharrak bideratu ahal izateko. Arlo guztietako parte-hartzeaz ari gara, ez gai zehatz batzuek soilik.

Durangarrek udal politikan zuzenean parte hartu dezaten dugu helburu, hauteskundeetan elkartzuta adibidez. Horretarako, alderdietako egiturak irekiak izan behar dira. Zentzu horretan, Herriaren Eskubideak, Ahal Dugu/Podemosek eta independenteek osatutako koalizioa aitzindaria da. Izan ere, hautagai-tzako kideen erdiak independenteak dira, erabakitze gaitasun erreala eta eraginkorra duten herritarrek. Horrek erakusten du badagoela politika egiteko beste modu bat, eta Durango beste era batean gobernatzeko beharra dagoela.

Estazioko lursailen urbanizazio proiektua adibide argia da herritarren parte-hartzea ezin garrantzitsua dela erakusteko. Durangarren ekarpenik barik, proiektu honek ez du zentzurik. Durangar guztiek dute eskubidea eremu horretan zer nahi duten erabakitze. Aukera historikoa dugu espazio publikoa eta politikoa berreskuratzeko. Erabaki dezagun elkarrekin. Aurrera, Durango!

* Erredakzioan itzulita

Durangaldea asteen

Autobusa antolatu dute Abadiñon eta Elorrioren, Altsasuko manifestaziora joateko

Durangaldea | 'Altsasukoak aske, muntai polizialik ez!' lelopean manifestaziora deitu dute domekarako, martxoak 24, Altsasun. 12:00etan hasiko da mobilizazioa.

Abadiñon eta Elorrioren autobusa antolatu dute Altsasura joateko. Goxoa edo Abarketeruena tabernetan eman dezakete izena abadiñarrek. Elorrioren, ostera, Portalekuan apuntatu daitezke. Autobusa 10:00etan irtengo da Zelaletako geltokitik. Gero, elorriarrak batuko dituzte.

14 gaztek parte hartu dute Hazilan programako laugarren edizioan

Durangaldea | Durangaldeko 14 gaztek parte hartu dute Amankomunazgoak antolatu duen Hazilan programan. Programa honen helburua enplegarritasuna hobetzea da, partaide bakoitzaren ezaugarrietara egokituta. Amankomunazgoak ohar bidez jakitera eman duenez, amaitu berri den lehenengo fase hau behar bezala burutu dute parte-hartzaileek.

Martxoaren 30ean izango da Durangaldeko emakumeen bizikleta martxa feminista

Durangaldea | Iurretan hasi eta Zaldibarren amaituko da Durangaldea zeharkatuko duen martxa. Bizikleta martxaren ostean, bazkaria eta jaia egingo dituzte Zaldibarko gaztetxean. Bazkarirako txartelak Zaldibarren (Castet eta Sorgin), Durangon (Intxaurre eta Txalaparta), Berrizen (Fonda eta Topa), Elorrioren (Portalekua), Atxondon (Gaztelekua), Abadiñon (Abarketeruena) eta Iurretan (Gaurgi) erosi ahalko dira.



Durangoko galdategi biri bentzeno isuriak murrizteko eskaera egin die Jaurlaritzak

Durango | Galdategi biri bentzeno isuriak murrizteko errekerimendua egin die Eusko Jaurlaritzak, nahiz eta prentsa oharrean ez duten zehaztu zeintzuk diren galdategiak. Herrian egindako aire ikerketaren emaitzetako bat da. "Egiaztatu du konposatu horren arrastoak daudela, lege-mugaren azpitik baina denboran mantentzen direnak", azaldu du oharrean.

Enpresek ekintza-plan bat aurkeztu beharko dute produkzio prozesuan bentzeno isuriak saihesteko. Jaurlaritzak azaldu du ikerketa fasean zehar enpresa biek elkarlanerako jarrera eduki dutela. Galdategietan prebentzioa garatzen duten zerbitzuekin hartu-emanetan ipiniko da Osalan erakundea, esposizio arriskua aztertzeko.

"Lasaitasun mezua helarazi gura diegu herritarrei, detektatutako emisioak araudian ezarritako parametroen barruan baitaude", azaldu du Durangoko Udalak. Hala ere, enpresek neurri zuzentzaileak hartzea "ezinbestekotzat" jo du.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

alboan

Psikomotrizitate gunea

Hurbildu zaitetz eta ezagutu gaitzazu!

ATE IREKIAK

Martxoaren 27an 17:00etatik 19:00etara
Martxoaren 30ean 11:00etatik 13:00etara

Jose Antonio Agirre Lekube Etorbidea 2, Atxondo 688774295

hitz


liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak



1#
BIZITZEA EZ AL DA OSO ARRISKUTSUA?
Joseba Sarrionandia
Pamiela



2#
FAKIRRAREN AHOTSA
Harkaitz Cano
Susa



3#
GURE OROITZAPENAK
Joseba Sarrionandia
Elkar



Txistu doinuak

JAIALDIA

ELORRIO :: Martxoak 24

Durangaldeko 64. Txistulari Eguna ospatuko dute Elorrion

Durangaldeko Jaizale elkarteak antolatuta, Durangaldeko 64. Txistulari Eguna ospatuko dute, domekan, Elorrion. Herriko kaleetan egongo duten kalejiragaz hasiko dute eguna, 10:00etan. Gero, kontzertua egongo da plazan. Besteak beste, Jaizale elkarte txistulariek, Berriotxo Abesbatzak eta metal taldeak parte hartuko dute. 13:00etan hasiko da saioa.

Martxoaren 22an

ABADIÑO izena ematea
Zuhatza irlara joateko izena emateko azken eguna. Udal Mediatekan edo Errota kultur etxean. Katalamixonek antolatuta. Infomazioa: katalamixon@gmail.com/654 78 97 09/ gazteria@abadino.org / 94 466 94 20

DURANGO musika
Arteak Ireki: Mocker's Beats of Freedom + Dj Ingartzi Leviosa, 21:30ean, Anttonio's-Gure Toki tabernan.

ELORRIO antzerkia
'Elisa y Marcela' (A Panaderia-Galizia), 20:30ean, Arriolan.

ELORRIO bisita gidatua
'Gorria' erakusketarako bisita gidatua (gaztelaniaz), 19:00etan, Iturri kultur etxean.

ELORRIO musika
Tooth + Vulk, 23:00ean, Gaztetxean.


IURRETA musika
Kontzertua: Mr JL + Lehian. Ondoren, **DJ Bull,** 19:00etan, Askondo kaleko aterpean. Juan Orobiogoitia institutuko ikasleek prestatutako jaialdia, ikasbidaia egiteko dirua batzeko. **Zozketak eta sorpresak** egongo dira.

IURRETA ipuina
'La Donna Inmobile' Itziar Rekalde ipuin kontalariaren eskutik, 19:00etan, bibliotekan. Nagusientzako saioa.

OTXANDIO tailerra
'Ai Laket. Drogen kontsumo arduratsua' 18:00etan, Gaztetxean.

ZALDIBAR ipuinak
Zirkua eta globoflexia, liburutegian. 17:30ean (3-5 urte) eta 18:00etan (6-9 urte).

Martxoaren 23an



Sweet Margot

KONTZERTUA
IURRETA :: Martxoak 23

MUSIKA Sweet Margot taldearen kontzertuagaz abiatuko dute, zapatuan, Auzorik Auzo egitasmoa Iurretan. Irati Bilbaok eta Mikel Nuñezek osatutako taldeak zuzeneko emanaldia eskainiko du Amezketan, 18:00etan. Horren ostean, luntxa egongo da bertaritzen direnentzat.

BERRIZ musika
Arteak Ireki: ETXE + Ibai Marin y la vieja guardia, 22:00etan Hiltegeixe gaztetxean.

BERRIZ antzerkia
'Vida' (Javier Aranda), 20:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO ikuskizuna
Arteak Ireki: 'JukeBox EkaHitza' poesia, musika eta irudi performancea (Paddy Rekalde-Itsua-Oier Flores), 19:00etatik 21:00etara, Txoria Nuen Maite tabernan.

ELORRIO aurkezpena
'1956-2015. Txistu hotsak Durangaldean' Juanan Aromaren liburuaren aurkezpena, 19:00ean, Ateneoan. Ondoren, **kontzertua: Araba Txistu Banda.**

ELORRIO jaia
Durangaldeko Bulkada Eguna. Egun osoko egitaraua. 22:00etan, plazan: **Kaleko Urdangak+ Ezetaerre + Gora Etorri.** 02:00etan, **DJ Bull.**

ZALDIBAR musika
Arteak Ireki: Kike Tormena, 20:00etan, Sorgin tabernan.

Martxoaren 24an

ATXONDO dastaketa
Taloak, 13:00etan, plazan. Atxondo Harrera Herria.



José Pérez Ocaña artista ezagunaren istorioa, Zornotza Aretoan

ANTZERKIA | Bartzelonan (Katalunia) 70eko hamarkadan girotutako obra da *Ocaña*. Francoren diktaturaren azken urteak dira, eta José Pérez Ocaña margolari sevillarra bere margolanak plazaratzeko eta mundua aldatzeko borrokan murgilduta dago. Artista

andaluziarra oso lotuta egon zen borroka politikoagaz eta erreibindikazio homosexualagaz, eta jazoera entzutetsuen eragile izan zen Bartzelonako Ranbletan.

Inoiz ulertu ez zion gizar-tearen eskutik maitasun eza eta gutxiespena jasan zituen

bere azalean Ocañak. Orain, bere bizitza berreskuratu du, La dramática errante konpainiak bere istorioa kontatu beharrekoa zela uste duelako.

Maria Goiricelayak zuzendutako obra da *Ocaña*. Gaur, martxoak 22, 20:15ean taularatu dute Zornotza Aretoan.

DURANGO musika
Doinuzahar kamera abesbatza, 19:00etan, San Frantzisko elizan. Patxi Azurmendi (bibolina) eta Roberto Oviedo (pianoa).

DURANGO jolasak
Jolasaren txokoa, 12:00etan, Plateruenean.

Martxoaren 25ean

ABADIÑO lehiaketa
Barrizten Sarien III. edizioa: I. Argazki Lehiaketan parte hartzeko azken eguna.
Gaia: 'Gure Abadiño'. Argazkia bidaltzeko: 634 678 592 telefonoa. Hiru sail: LH, DBH eta 16 urtetik gorakoak. Sariak: tablet bi eta pocket mini inprimagailu bat.

DURANGO izena-ematea
Uda Topera programan izena emateko epea zabalik. Apirilaren 1era arte. www.durango.eus

Martxoaren 26an

ELORRIO hitzaldia
'Gerra zibila eta lehenengo frankismoa Elorrioren: Lehenengo ekarpenak' (Mikel Diego), 19:00etan, Iturri kultur etxean.

Martxoaren 27an

BERRIZ dokumentala
'L'atelier' dokumentala, 19:00etan, Kultur Etxean.

Martxoaren 28an

DURANGO musika
Dj Muztio Oliba, 22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan. Jan and Jai.

DURANGO hitzaldia
Atzeritarren Legeari buruzko informazio saioak: 'Ziurtagiri digitalak', 18:30etik 20:00etara, Elkartegian. Udaleko Immigrazio arloa.

ELORRIO hitzaldia
'Emakumeak II. Errepublikan eta Frankismoa' (Eider de Dios), 19:00etan, Iturri kultur etxean.

Martxoan zehar

BERRIZ erakusketa
'OUKA LEELE'. Barikuetan, 18:30etik 20:30era. Asteburuan, kultur ekintzen ordutegian.

Martxoko agenda



23	"IU GAZTE" 17:00-20:30 Etxego zabalik! "AUZORIK AUZO-AMEZKETA" 18:00 Sweet Margot (Pianoa eta ahotsa. Jarraian auzokideekin luntxa.
25	"ANDEREBIDE GOIURIA KULTUR GUNEA" 18:00 Zoru pelbikoaren indartzea
26	"INGELESEZKO IRAKURKETA KLUBA" 18:30 "The awakening" Kate Chopin
27	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" 10:00 XL irakurketa kluba "GURASO ETA IRAKASLEENTZAKO TXARLAK" 18:30 Hizlaria: Juan Carlos Alonso (Psikologoa) Gaia: "Kontsumismoa eta teknologia berriak" Izena emateko epea: Martxoaren 11tik 22ra
28	"GURASO ETA IRAKASLEENTZAKO TXARLAK" 18:30 Hizlaria: Juan Carlos Alonso (Psikologoa) Gaia: "Kontsumismoa eta teknologia berriak" Izena emateko epea: Martxoaren 11tik 22ra
29	"ANDEREBIDE GOIURIA KULTUR GUNEA" 16:15 "Biodantza" tailerra
30	"IU GAZTE" 17:00-20:30 Etxego zabalik!



'Kontsumismoa eta teknologia berriak' (Juan Carlos Alonso), 27an eta 28an, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

DURANGO erakusketa
'ERREgistruek. Buruek, zuluak eta espiluek'.
Amaia Asategi Iturralde.
Arteka liburu-dendan.

DURANGO erakusketa
'Argiak eta Itzalak'
Acuzena Fernandez Artetxe. Arte eta Historia Musean.

Apirilaren 1era arte

ABADIÑO lehiaketa
San Prudentzioetarako kartel lehiaketa. Udal Mediatekan edo Errotan. Saria: 300 euro.

Apirilaren 28ra arte

DURANGO erakusketa
'At Ente' erakusketa kolektiboa: Iranzu Antona, Mariana Unda, Eztizen La Cruz, Leire Muñoz, Clara Elizondo eta Andere Etxegarai.
Arte eta Historia Musean.

Zinea

:: **Berriz** KULTUR ETXEA

• **Los Lunnis**
barikua 22: 18:15
domeka 24: 17:00

:: **Durango** ZUGAZA

• **Dolor y gloria**
barikua 22: 19:30/22:00
zapata 23: 17:00/19:30/22:30
domeka 24: 18:00/20:30
astelehena 25: 18:30/21:00
martitzena 26: 20:00
eguztzena 27: 20:00

• **Nosotros**
barikua 22: 19:30/22:00
zapata 23: 17:00/19:30/22:30
domeka 24: 18:00/20:30
astelehena 25: 18:30/21:00
martitzena 26: 20:00
eguztzena 27: 20:00

• **Mula**
barikua 22: 19:30/22:00
zapata 23: 19:30/22:30
domeka 24: 19:30
astelehena 25: 18:30/21:00
martitzena 26: 20:00
eguztzena 27: 20:00

• **Corgi, las mascotas de la Reina**
zapata 23: 17:00
domeka 24: 17:30

:: **Elorrio** ARRIOLA

• **Green book**
zapata 23: 22:00
domeka 24: 20:00
astelehena 25: 20:00

• **Legó 2 Filma**
domeka 24: 17:00 (euskaraz)

:: **Zornotza** ARETOA

• **Mula**
zapata 23: 19:30/22:00
domeka 24: 20:15
astelehena 25: 20:15

• **Corgi, las mascotas de la Reina**
zapata 23: 17:00
domeka 24: 17:00

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.

“Beheraldiak edukitzean, ondo dator zure afizio berdinak dituen jendeagaz elkartzea”

Apirilaren 28ra bitartean, Durangoko Arte eta Historia Museoa daude ikusgai Azucena Fernandez azken margolanak



Azucena Fernandez Artetxe

Margolaria
Zierbena | 1957

MARGOLARITZA • ARITZ MALDONADO
1997tik hona ibili da margotzen Azucena Fernandez. Juanjo Novella eskultore portugaletarraren eskutik ikasi zuen margotzen, eta dakien guztia hari esker ikasi du. Urteotan, bizkarreko arazo batek baino ez dio pintzela eskuetatik kendu. Bost bider irabazi du Durangoko margo txapelketa. Bere beharrekin osatutako 'Argiak eta itzalak' erakusketa Durangoko Arte

eta Historia Museoa daude ikusgai, apirilaren 28ra arte.

Zer da 'Argiak eta itzalak'?

Marraskigintzan, argiekin eta itzalekin eraikitzen ikasi nuen lehenbi; edozein obraren oinarria dira. Kontraste horregaz lan egitea asko gustatzen zait. Nire lanetan, itsasoak ere eragin nabarmena du. Etengabea da itsasoaren presentzia, eta hartzen dituen koloreak azpi-

marratuko nituzke. Askotan agertzen dira uraren berdea, urdina eta grisak, eta iluntzeen isla urretsuak. Nire lan guztietan nabaritu dut itsasoaren eragina. Materialei dagokienez, denetarik dago: olioagaz, akrilikoekin, pastelagaz eta ikatz-ziriagaz eginiko lanak daude.

Zein denbora tartean egindako lanak dira?

Azken urte bietan egindako lanak dira, ikatz-ziriagaz egindakoak

izan ezik. Horiek zaharragoak dira, eta, gainera, nire bilduma partikularrekoak dira. Bitxikeria moduan, horietako bat orain dela urte asko egin nuen, eta gero saldu egin nuen erakusketa batean. Sekulako penagaz geratu nintzen, eta beste bat egitea erabaki nuen. Oheburuan daukat orain. Niretzat seme-alabak bezalakoak dira artelanak, eta asko kostatzen zait saltzea. Are gehiago, salduz gero, damutu egin naiz

sarri. Hainbat lan errepikatu egin ditut urteotan.

Lehenbiziko erakusketa duzu museoan.

Bestelako esperientzia bat izango da. Orain arte, kultura aretoetan jarri izan ditut ikusgai nire lanak, baina inoiz ere ez areto partikularretan, beste pertsona batentzat egiten duzulako lan. Durangon bost sari irabazi ditut, eta suposatzen dut horregatik deitu didala Garazi Arrizabalagak [museoko zuzendaria]. Horrek ere bultzatu nau erakusketa egitera. Eta, bide batez, Garazi eskertu gura nuke.

Durangogaz duzun harremana hortik dator?

Senarra Durangaldeko Artista Elkartearen kide baten lankidea

“**Margolanak seme-alabak bezalakoak dira niretzat, eta asko kostatzen zait saltzea; salduz gero, damutu ere egiten naiz sarri**”

da, eta berak animatu ninduen lehiaketetan parte hartzera. Bolada txar baten ondorioz, eskegi egin nituen pintzelak, eta elkartearen proposamenak asko lagundu zidan berriro ekiteko. Margolaritzaren mundu hau oso esker txarrekoa da. Momentu ikaragarri onak pasatu ditzakezu, eta ez hain onak ere bai. Beheraldiak dituzunean, oso ondo etorri ohi da zurearen moduko afizioa duten pertsonekin esperientziak partekatzea.

Nola animatuko zenuke jendea zure erakusketara joan dadin?

Museora zein Ezkurdiko erakusketa aretora joateko gomendatzen diot jendeari. Izan ere, artea maite duen jendearentzat eta lan handia egiten duen jendearentzat daude zabalik.

Garcia eta Goitiandia zornotzarrek etxean estreinatuko dute 'Amaren Eskuak' antzezlan

Artez Hobe elkarteak Zornotza Aretoa estreinatuko du obra, martxoaren 29an, 20:15ean

ANTZERKIA • A.M.

Urte biko lanaren ostean, Larraitz Garcia eta Jabier Goitiandia etxean estreinatuko dute *Amaren Eskuak* antzezlan. Biek elkarlanean sortu dute obra. Garcia 2017an sorturiko ideia eta testu batean oinarritzen da obra; Jabier Goitiandia antzezlanerako musika sortu du.

Garcia eta Josu Angulo aktore bilbotarra Miren eta Kepa neba-arreben azalean sartzen dira antzezlanerako. Emakumeak kirolean eta gizartean duen rolaz

Larraitz Garcia eta Jabier Goitiandia Artez Hobe elkarteak sortu dute proiektuak sortzeko

Emakumeak gizartean eta kirolean duen rolaz hausnartuaraztea gura dute antzezlan honeguz

jardungo dira, euren amak esku pilotagaz duen maitasun istorioa kontatzen duten bitartean. Maitasunak, ametsek, beldurrak eta gaixotasunek duten eraginaz hausnartuaraziko dute ikuslea.

Indarra, elkarlanean

Euren bakarkako zein taldekako lanak aurrera eramateko, Larraitz Garcia eta Jabier Goitiandia zornotzarrek Artez Hobe kultur elkarteak sortu dute; bestelako proiektu artistikoak ere egingo dituzte.



Larraitz Garcia eta Jabier Goitiandia.

Durungaldeko hainbat kultur gile eta ostalarik bat egin dute Arteak Ireki egindako deialdiagaz

Berrizen, Durangon, eta Zaldibarren zuzeneko emanaldiak antolatu dituzte barikurako eta zapatarako

MUSIKA • KAROLINA SUAREZ / A.M.

Durungaldean ere hautsak harrotu ditu tabernetako eta areto txikieta-ko emanaldiak mugatuko dituen Eusko Jaurlaritzaren dekretuak. Besteak beste, hilean kontzertu bi eta urtean hamabi izatera mugatuko ditu, eta horrek kezka sortu du kultur gileen zein ostalarien artean. Horri erantzuteko asmoz, Arteak Ireki plataforma sortu zen otsailean, dekretua aurkeztu berri-ritan. Milaka herritarrek babestu dute plataformaren manifestua, eta sareetan ere hamarka dira ekimenaren alde agertu diren artista zein norbanakoak. Ekimenaren harira, *Keep on rocking in the free world* abesti ezaguna moldatu dute hainbat musikari ezagunek.

Arteak Ireki plataformak herri-rik herriko mobilizazioetara deitu du martxoaren 23rako. *Hartu zure kultura espazioa* lelopean, "aktibazio kulturalerako" egunean parte hartzea deitu dute. Gutxienez, 30 ekitaldi daude iragarrita Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat herritan. Durungaldean ere hainbat kultur gile eta ostalarik bat egin dute deialdiagaz. Horrela, ohikoa baino agenda aberatsagoa egongo

da eskualdean asteburuan. Durangoko Goienkalen dagoen Antonio's tabernan, adibidez, egun bat aurreratuko dute deialdia. Mocker's durangarrek akustiko laburra eskainiko dute, eta, horren ostean, Ingertzi Leviosak musika jarriko du. Etxe berrizarrak ere kontzertua eskainiko du, Berrizko Gaztetxean, zapatuan.

Eskualdeko hainbat lokalek ibilbide luzea dute horrelako ekimenak antolatzen, eta neurri

Durangoko Antonio's-en, Zaldibarko Sorginen eta Berrizko gaztetxean egingo dituzte kontzertuak

horrek kalte zuzena eragingo die. Horregatik, "kulturaren kontrako erasoen aurka" emanaldia antolatu dute Durangoko Txoria Nuen Maiten. Itsuak musika jarriko du, Paddy Rekaldek olerkiak irakurriko ditu eta Oier Floresek margo performancea egingo du. Zaldibarko Sorginen, Kike Tormenta arituko da.



JON PETRALANDA
Txoria Nuen maite

"Bertako musikari eta tabernentzat oztopoak baino ez dira"

DURANGO • KAROLINA SUAREZ

Askatasun falta ekarriko du. Kopuruak asko mugatzen gaitu ekitaldiak antolatzeko. Arauak egon behar dira, baina ez modu hain itxian. Eskualdean, Arteak Irekigaz bat egiten duten emanaldietara animatu gura dugu jendea. Kexatu egiten gara, kulturalki eskaintza gutxi dagoela eta herrietan bizia falta dela. Horrela jarraituz gero, makroekitaldiak baino ez dira egongo.



IÑAKI ETXEZARRAGA
Musikaria

"Zapatukoa hasiera bat izan dadila, herriak emanaldiz beteta edukitzeko"

BERRIZ • KAROLINA SUAREZ

Areto txikietan gura beste emanaldi egiteko aukera egon beharko litzateke, debekuen gainetik, eta horregatik egin behar dugu bat mugimendu honeguz. Bakarlarri moduan, askotan jotzen dut toki txikietan, eta aukera hori mugatzen bada, oztopo handia da guretzat. Dekretuaren kontra egiteko, garrantzitsua da jendea mobilizatzea, eta urtean zehar egiten diren emanaldiak babestea.

Gai librea

Ainhoa Urien Tellexea
Ikaslea



Haur batek erakutsi dit

Haur batek ezingo du bere burua elikatu, ziur asko ezin du bere burua garbitu, ezingo du bere kabuz aterpe bat bilatu. Haur bat bakarrik eta solte uzten baduzu gosez hilko da edo hotzak akabatuko du, salbuespenak salbuespen.

Paseoan nenbilela haur bi nituen aurrean. Haurretako batek urtebete eskas izango zuen, besteak aldiz, bizpahiru. Nagusienak txikienari heldu dio eskua olgetara gonbidatuz. Txikiak, ordea, eskua erretiratu du. Nagusienak ia erreparatu ere ez dio egin keinu horri, besterik gabe onartu du eta bere bideari jarraitu dio; ez haserrerik, ez jelsokortasunik, ez frustraziorik, ez minik. Albokoaren askatasunaren onarpena, horrela bat-batean, ekin aurretik pentsatu gabe, barruko senez, berez eta naturalki askeak garelako erakutsiz.

Bere kabuz bizirik irauteko gai ez den haur batek erakutsi dit harremanekiko menpekotasunik ez dugunean eta bestearen askatasuna gurearekin partekatzen dugunean, orduantxe sentituko dugula maitasuna barrunbeetan borborka, eta askatasunaren izenean deiadarka ibiliko garelako, eta zorientasuna atzamar puntekin laztanduko dugula eskua bihotzera hurreratzen dugun bakoitzean.

Pentsatu momentu batez nola erreazionatzen duzun norbaitek eskua ukatzen dizunean. Helduarorako bidean galdu genuen nonbait geure buruak bat eta osoak direnaren kontzientzia, eta gure lagun bidaide baino harreman horien menpeko bihurtu ginen.

Bere kabuz bizirik irauteko gai ez den haur batek erakutsi dit, agian, haurrak direla bere buruaren jabe diren bakarrik.



Erein taldea, Intxaurre Elkarteak antolatutako EguenERO jaialdian.



ATXONDOKO UDALA

HERRI BATZARRA

Urkezun Kultur Etxea egiteko parte-hartze prozesuaren ondorioak

Martxoak 27, eguaztena, 19:00etan udaletxean

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

publizitatea@anboto.org

94 621 79 02

anboto
komunikabideak

afede



DIBERTIGARRIA...BAINO GEHIAGO!

DURANGO: SIMPLY Merkatal Zentroa / Fray Juan Zumárraga 17 • ZORNOTZA: Gudari 49
EIBAR: San Juan, 13 • DEUSTU(Bilbo): Blas de Otero, 2 • SANTUTXU (Bilbo): Karmelo, 9



Veronica Legorburu Azkune
Durango Nissan Gaurisa taldeko kapitaina.
Durango | 1998

da ikastea bakarrik; zergatik den garrantzitsua ulertzea ere inportantea da.

Taldeko kapitaina zara. Gustura hartu duzun erantzukizuna da?

Hirugarren denboraldia daramat kapitain lanetan. Taldeko liderretako bat zara eta zelaian daudenean

“

Barrutietak maila handia dauka, zelaian dagoenean igarri egiten da eta beragaz asko ikasten dugu”

zeuri entzuten dizute. Batzuetan pentsatzen dut: "Ondo arituko ote naiz? Esan beharrekoa esan ote dut?". Nik beti diot gurago dudala zelaian jokalaria bat gehiago izan, agindu bat hartu eta bete. Baina gidaritza hartu behar badut, prest nago horretarako.

Gaztetxoaren entrenatzaile ere bazabiltza. Gustuko duzu irakastea?

Iaz hasi nintzen eta gustura sentitu nintzen, jarraitu egin dut. Zortzi urtez azpiko taldeagaz nabil. Gaztetxoekin pazientzia handia behar da eta, batzuetan, kostatu egiten da, baina eurekin barre egiten dut eta ondo pasatzen dugu.

Zelan baloratzen duzu gizonen taldearen lana?

Urte askoan lan handia egin dute Ohorezko B Mailari eusteko, eta hori baloratu egin behar da. Aurkariak gero eta jokalaria kanpotar gehiago fitxatzen dituzte eta horrela zaila dela ulertu behar da.

“Potentzial handiko errugbi taldea dugu eta jokalaria bakoitzak hobera egin dezake”

Veronica Legorburu kapitainaren esanetan, Durango Nissan Gaurisa etorkizunera begirako zimenduak jartzen dabil aurten

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Durango Nissan Gaurisa emakumeen errugbi taldeko kapitaina da Veronica Legorburu. 20 urteagaz, gazte-gazterik egokitu zaio zelaian agintzea. Trantsizioko etapa batean sartuta daude eta apurka-apurka ikastea da aurtengo helburua.

Jokalaria berri asko dituzue?

Neurri batean, talde berria gara: jokalaria gazteak igo dira, batzuk itzuli egin dira, Elorriotik edo Mungiatik etorri denik ere badago... Hasieran, kostatu egin zitzaigun elkar hartzea. Baina uste dut apurka-apurka gure maila igotzen ari garela.

Lesioek asko eragin ei diote taldeari denboraldian zehar.

Bai, horrela da. Denboraldia 24 bat fitxagaz hasi genuen. Nahikotxo dira. Baina denboraldiak aurrera egin ahala, taldea murriztuta gertatu da lesioak direla eta.

Lesioena zorte txarra da?

Ez dakit zer gertatzen den. Batetik, norbaitek begizkoa bota digula esango nuke. Bestetik, entrenamenduetatik kanpora nork bere prestakuntza fisikoa egiteak lagundu egiten duela uste dut: korrika egiteak, gimnasia joateak... Gorputza indartu egiten da

eta lesioak izateko aukera, gutxitu. Beharbada, alderdi hori indartu egin beharko genuke.

Jokalaria erabilgarri gutxi izateak bere ondorioak ditu?

Euskal Ligako bigarren fasean multzo bi daude: 15 jokalariko taldeak eta 12koak. Jokalaria kopuruaren arabera, talde bakoitzak aukeratu du non aritu. Guk 12koa aukeratu dugu, ez dago-eta jokalaria hutsetik ateratzerik!

Zer helburu dituzue bigarren faseari begira?

Potentzial handiko taldea dugu eta jokalaria bakoitzak hobera egin dezake. Jarrera egokiagaz, pausok ematen joan gaitezkeela uste dut. Apurka-apurka hazten joatea da gure helburua geratzen diren partiduetan. Denboraldi hasieratik ikeragarri hobetu dugula uste dut eta norabide berean jarraitu behar dugu lanean.

Muir Kara entrenatzaile izatea lagungarria da ikasteko?

Bai, jakina. Muir Karak esperientzia handia du eta asko daki. Hori gure onerako da. Aurreko batean, iazko gure partidu bateko bideoak ikusten ibili nintzen, eta zelako akatsak egiten genituen konturatu nintzen. Zorionez, horiek konpontzen gabilta.

“

Nik beti diot gurago dudala zelaian jokalaria bat gehiago izan, baina taldeko gidaritza hartu behar badut, prest nago”

—

Uribarri Barrutieta DRTra itzuli da. Bere moduko jokalaria esperientziaduna taldean izateak laguntzen du?

Bai, jakina. Uribarri Barrutietak maila handia dauka, nabari-nabaria da hori. Zelaian dagoenean igarri egiten da. Beragaz ikasi egiten dugu. Zerbait berria lantzen bazabiltza, zergatik den garrantzitsua azaltzen digu; hau da, kontua ez



Durango Nissan Gaurisa taldea, aurtengo denboraldiko partidu baten aurretik.



IURRETA

Tellitu-n

*3 logelatako
6 etxebizitza*

*2 logelatako
11 etxebizitza*

*Garajea eta
trastelekua barne*



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com

Zornotza Saskibaloitza Taldea, aho zapore garratza ahaztu eta garaipenaren bila

Albaceteko jipoia atzean utzita, Murtzia taldea menderatzen saiatuko da bihar, etxean



Zapatuan, 18:00etan, hasiko da Murtzia taldearen kontrako partidua Larrea kiroldegian.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Urrezko Ligarako igoera fasean aitzakiarik bako porrota jasan zuen Zornotza Saskibaloitza Taldeak joan zen asteburuan. Albaceteko Almansa taldeak xehatu egin zuen: 90-56. Hala ere, asteburu bakoitza aukera berri bat da eta bihar, 18:00etan, aho zapore garratz hori kentzeko abagunea izango du etxean, Murtzia taldearen kontra. Talde honek azken partidu biak

Almanta taldearen kontra ez zuen bere maila eman eta 34 puntuko aldeagaz galdu zuen

Igoera fasea estu dago; Zornotzak gertu du liderra, baina beste bost talde orpoz orpo ditu

galdu ditu eta ez dago sasoirik onenean.

Igoera fasea estu dago. Gorantz begiratuta, Zornotza Saskibaloitza Taldeak garaipen bira du Alicante liderra. Baina behegaro daudenei ere erreparatu beharra dago, bost talde orpoz orpo dituelako. Emozioz betetako zortzi jardunaldi falta dira igoera fasea amaitzeko.

Jokaldia

June Arbeo
Sarrugarte
Korrikalaria



Euskal selekzioa

Aurten, beste urte batez, Euskadiko selekzioeko kamiseta jantzi ta egin dugu korrika estatuko kros txapelketan. Polita izaten da noizean behin kamiseta aldatu eta gure herrialdea ordezkatzeari. Denok saiatzen gara gure selekzioa ahalik eta postu hoberean uzten, eta ahalik eta ondoen egiten. Baina, zoritxarrez, beti ez daukagu aukera hau, eta, beste kirol batzuetan ez bezala, horrenbeste gustatzen ez zaigun selekzioeko kamisetarekin parte hartu behar izaten dugu hainbat txapelketatan (nazioartekoak direnatan).

Nazioarteko txapelketa batean parte hartzea, Europako eta munduko atleta hoberean artean egotea eta beraien aurka lehiatzea atleta guztiok daukagun ametsetako bat izaten da. Nahiz eta horretarako, Espainiako selekzioarekin parte hartu behar izaten dugun. Amets hau lortzea ez da batera erraza izaten, eta egunero gogor entrenatzen gara horrelako esperientzia bat bizi ahal izateko. Esfortzuaren ondoren, eta lortutako helburuaren ondoren, ez da erraza honi uko egitea.

Argi dago bakoitzaren erabakia dela guretzako arrotza den selekzio bat ordezkatzeari, edo horri uko egitea, gure pentsaera eta sentimenduak ez apurtzeko. Baina, denok daukagu kontrasteak, eta batzuetan gure printzipioak apurtu behar izaten dira, egoerak horrela behartzen gaituenean, beti ere kontziente izanik egiten dugunaz. Hau epaitu aurretik, kontuan hartu behar da beste era batean ezinezkoa dela nazioarteko kirolarekin lehiatzeko aukera izatea, beste kirol batzuetan ez bezala. Argi dago nire benetako ametsa horrelako txapelketa batean nire selekzioa ordezkatzu parte hartzea izango litzaitekeela.

Kulturaleko bazkide txartela dohainik, gol baten trukean

Saria lortzeko, baloia zelai erditik jaurti eta ate barrura sartu beharko da biharko partiduen atsedenaldian

FUTBOLA • J.D.

Durangoko Kulturalak azkenengo partidu biak irabazi ditu eta Bigarren B Mailari eusteko esperantzagaz jarraitzen du. Taldea animatu eta azken jardunaldietako emozioa bertatik bertara jarraitu gura dutenek, urtea amaitu arte Kulturalako bazkide txartela dohainik lortzeko aukera izango dute.

Kulturalak eta Calahorrak bihar, 16:00etan, Tabiran jokatu

du ten partiduko atsedenaldian izango da. Lagun bik baloia zelai erditik jaurti eta ate barrura sartu beharko dute saria irabazteko. Baloiak area barruan eman behar du lehenengo botea. Tabira zelaian eman daiteke izena, egunean bertan, partidua hasi aurretik.

Bestalde, partidu horri begira, bazkideek doako sarrera bat eskuratu dezakete sarreran bazkide txartela erakutsita.

Konarek bost dominagaz amaitu du Espainiako Kopa

Kadete mailan estatuko erreferenteetako bat da

JUDO • J.D.

Kadeteetan eta 52 kilora arteko pisuan, estatuko judokarik onenetakoa da Durango Judo taldeko Deniba Konare. Saikapen nagusian bigarren tokian dago, hein handi batean Espainiako Kopan burutu duen lan bikainari esker. Bost jardunalditan lau domina irabazi ditu. Euretako bi urrezkoak izan dira, eta azkena joan zen asteburuan irabazi zuen, Huescan (Aragoi). Espainiako txapelketa izango du hurrengo hitzordu handia.



CERAMICAS
MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890

katerin ardoak
iñaki uribe

25^{urte} Saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardogia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Denboraldiko emaitza boladarik onenari esker, igotzeko borrokan dabil Elorrioko

Zazpi jardunaldi kateatu ditu galdu barik areto futbol taldeak

ARETO-FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Elorrioko Parra Taberna taldea behetik gorako bidea egiten ari da Hirugarren Mailan. Eskas hasi zen eta, orain, azken txanpa heldu denean, inoiz baino hobeto dabil: zazpi jardunaldi daramatza galdu barik, eta eurretatik lautan irabazi egin du. Bolada on horregaz, hirugarren kokatu da eta igotzeko aukerak ditu.

Orain urte bi Bigarren B Mailara igo zen, klubaren historian lehenengoz. "Elorrioren moduko herri txiki batentzat sekulakoa izan zen", gogoratu du taldeko entrenatzaile Iker Saenz de la

Cuestak. Bigarren geratuta igo ziren, ligako txapeldunak, Bilbok, uko egin ziolako igotzeari. Hau da, Elorriok sekula ere ez du Hirugarren Mailako ligarik irabazi, eta

Elorriok sekula ere ez du Hirugarren Mailako liga irabazi, eta hori lortzen saiatuko dira

Iaz Bigarren B Mailan batutako esperientzia "lagungarri" zaiela onartu du Saenz de la Cuestak

hori lortzea "berezia" litzatekeela onartu du Saenz de la Cuestak. Talde "oso ona" dutela dio eta iaz Bigarren B Mailan batutako esperientzia "lagungarri" zaiela. Dena beharko dute aspaldiko urteetako mailarik gogorrean. Hainbat taldek Bigarren Mailan eta Bigarren B Mailan aritutako jokalariek fitxatu dituzte eta garaipenak aspaldiko urteetako garestien daude.

Bigarren taldea

Elorrioko Autogain Talleres, klubeke B taldea ere igoera postuetatik gertu dago Bizkaiko Maila Gorenean. Baina gehiago eman dezaketela uste du Saenz de la Cuestak. "Sekulakoa taldea dute, baina irregularrak dira", arrazoitu du.



Jokalaria bi joan eta hiru etorri dira aurtan. Gainerakoak iaz Bigarren B Mailan aritutakoak dira.



Getxoko talde irabazlea: Asier Ramirez, Edorta Pastor, Milos Mallol eta Nagore Agirre.

Portugalete, Sestao eta Getxoko taldeak nagusitu ziren, erreleboka, Garaiko duatloian

Lehenengo aldiz antolatutako proban 18 taldek parte hartu zuten, Mugarra eta Zaldutri taldeek, tartean

DUATLOIA • J.D.

Erreleboko lasterketak indarra hartzen ari dira. Esaterako, triatloien errelebo mistoa kirol olimpikoa izango da, lehenengoz, 2020ko Joko Olimpikoetan, Tokion. Durangaldera ere heldu da fenomeno, Garaiko Triatloi Taldearen eskutik. Kasu honetan, erreleboko duatloi lasterketa antolatu zuen joan zen asteburuan, eta hainbat talde animatu ziren parte hartzera. Proba mistoan, Getxo Triatloi Taldeko laukotea izan zen onena.

Durangoko Mugarra Triatloi Taldeak talde bi eraman zituen eta Zaldibarko Zaldutrik, bat

Lau eta hiru kideko taldeek parte hartu zuten. Kide batek amaitzen zuenean hasten zen hurrengoa

Hiruko taldeen proban, Portugalete nagusitu zen gizonetan eta Sestao emakumeetan. Gizonetan, laugarren amaitu zuen Indarpak taldeak, Ion Mendizabal, Gorka Bizkarra eta Bersoitz Odrizolagaz. MugarraTT-k talde bi eraman zituen: seigarren geratu ziren Mikel Gonzalez, Unai Azkorbebeitia eta Aitor Iraurgi, eta zortzigarren Oxel Azkorbebeitia, Oier Bedialauneta eta Aidan Garcia. Zaldibarko Zaldutri taldeak 12. amaitu zuen, Ander Etxezarraga, Jose Ignacio Letamendia eta Omar Blancogaz.

Asteko kirolaria



AITOR MIMENZA CASTILLO

Elorrio, Korrikalaria

“Akilesen tendoian min dut oraindik eta horrek ez dit konfiantza hartzen uzten”

Lesio eta guzti ere, lasterketa bi irabazi ditu denbora gutxian Aitor Mimenza elorriarrak

ez da bete-betea. Akilesen tendoia minbera du oraindik eta horrek arduratu egiten du.

Zer sentazio izan zenituen Zestoako lasterketan?

Batez ere, neure burua probatzera joan nintzen. Azkenaldian lesioa dut Akilesen tendoian eta konfiantza faltagaz ibili naizenez, test moduan hartu nuen. Lasterketa bera ondo irten zitzaidan.

Gustura aritu nintzen eta sentazio onak izan nituen. Hasieratik ihes egin nuen eta, batez ere, neure buruaren kontrako proba izan zen.

Zelan doa lesioa?

Tratamenduagaz badoa hobera, baina oraindik minberatuta dut. Gustura nabil, baina entrenamenduetan min dut oraindik eta horrek ez dit konfiantza hartzen uzten. Ardura horregaz nabil.

Gertatu izan zait entrenamendu oso onak eginda lasterketara joan eta neurerik ez ematea, mina hor dagoela badakidalako edo ez dakit zergatik. Burua horrelakoa da batzuetan, ezezkoaren hautua egiten du. Gure kirolean alderdi fisikoa inportantea da, baina psikologikoa ere bai.

Hala ere, lasterketa bi irabazi dituzu denbora gutxian.

Bai. Urte hasieran egindako proba

bietan, Idiazabalen eta Zumaian, ez nintzen gustura geratu eta Arriarango mendi lasterketa neure burua probatzeko erabili nuen; Postuak alde batera utzita, sentazioak berreskuratzeko izan zen.

Zeintzuk dituzu hurrengo hitzorduak?

Martxoaren 30ean Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia egingo dut. Neure marka hobetzea izango da helburua. Orain ordubete eta zortzi minutuan dago eta, dena ondo badoa, hori hobetzeko gai banaizela uste dut. Baina, tira, lasterketa batean faktore askok eragiten dute: zirkuitu motak, talde on batean sartzeak eta beste batzuek. Ikusi egin beharko da zelan doan.

Durango Kirol Taldeko korrikalaria Zestoako herri lasterketa eta Arriarango mendi lasterketa (11 km) irabazi ditu martxoan, baina poza



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Abadiño. Muntzaratz auzoan, 90 metro karratuko etxebizitza trastelekuarekin salgai Artolazabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665733151

Elorrio. 70 metro koadroko etxebizitza trastelekuarekin salgai Elorrioko Argiñeta Etorbidea 20 zenbakian. 3 logeladuna. Beheko solairua. Eraberritze-obra behar du. Tel.: 631-12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Abadiño. Abadiñon Mendiola auzoan, lokal bat alokatzen da, orain TXOKO moduan dago, baina beste erabilera batzuetarako ere erabili liteke, adibidez enpresa batzarretarako, biltegi, ostatu eta abar. Umeek jolasteko leku handia dauka eta aparkaleku ederra. Informazio gehiago nahi badozu deitu 600464411 telefonora.

etxetu53@gmail.com

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Zaintzaile bezala lan bila.

Zaintzaile moduan lan bila nabil. Adineko pertsonak zein haurrak zaintzen esperientzia daukat. Orduka edo barneko langile moduan lan egiteko prestutasuna daukat. Berehalako disponibilitatea. Interesa duenak ondorengo telefonora deitu nazala, gaztelaniaz mesedez: Tel.: 631 925 525 Eskerrik asko.

Esperientziadun umezaina.

Kaixo. Irantz naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat umeak zaintzen eta begirale moduan. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644411174

LAN ESKAITZAK

PLANTXA ORDUKA EGITEN DUT.

Esperientzia handiko

emakumea, orduka plantxa zein etxeko lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. Tel.: 645 70 6839

PERTSONAK ZAINDU

Adinekoen zaintza lanak. Adineko pertsonen zaintzan lan bila nabil. Eskarmentuarekin. 21 urte ditut. (gaztelania) jorgebeloorin@gmail.com

Etxeko lanak egiteko, edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko lan bila nabil.

Kaixo, etxeko lanak egiten, zein adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Neska latinoamerikarra naiz, arduratsua, tratu onekoa. Jen-dearekiko harremana gustatzen zait. Edozein inguru zein pertsonetara egokitzeko gaitasuna daukat eta azkar ikasten dut. Barneko langile moduan lan egiteko prest nago adineko pertsonak edota umeak zaintzen edota etxekola lanak eta janaria prestatzeko ere. Berehalako prestutasuna daukat. Bizkaia edota Gipuzkoan. Telefonoz edota whatsappz kontaktatu, gaztela-

niaz mesedez. Tel.: 644930679

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali 602895018 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile gisa lan bila.

Adineko pertsonak (barneko langile) zaintzeko edota haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa litzatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin. Tel.: 644558390

Barneko langilea lan bila.

Emakume arduratsua lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa adineko pertsonak zaintzen edo haurren zaintzan lan egingo nuke. Sukaldean ere aritu naiteke. Berehala

hasteko moduan. Tel.: 632705225

Barneko langile gisa lan bila.

Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila nabil. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu 643727198 telefono zenbakira.

Erreferentzia onekin lan bila nabil.

Adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Garbiketa orduka edota lanaldi osoan. Tel.: 602895018

Lan bila. Adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko eta garbiketa lanean esperientzia duen emakumea lan bila. Erreferentzia onak ditut. Orduka zein lanaldi osoan. Tel.: 631585845

Bi ume zaintzeko pertsona euskalduna behar dugu. Durangon 8 eta 10 urteko bi ume zaintzeko pertsona euskaldun bat behar dugu. Arratsaldeetan martxoaren 20tik maiatzaren 10era bitartean (Aste Santuan ez). Tel.: 649563492



GARAZI GOIA ASTE HONETAN JANIRE AZKUETA


DOAN

Ttop euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



ttop
Irakurri, ukitu,
ikus, entzun.

Informazio gehiago:
ttop.eus



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



Botikak

BARIKUA, 22 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 23 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 24 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 25 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 26 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 27 - 09:00-09:00

ETXEARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 28 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak, bikote! Martxoaren 19an **Iratik** 8 urte egin zituen eta martxoaren 22an **Ekainek** 6 urte. Jarraituzue beti bezain txintxo! Ea aurten ere mendi asko igotzen ditugun! Muxu handi bana!



Zorionak, hirukote, **Udane, Izar** eta **Ibaia**, familia osoaren partez. Maite zaituztegu, atzo baino gehiago eta bihar baino gutxiago... Muxutxu pila pila...



Martxoaren 16an urtetxu bi egin zituen **Uzuri** Cebrian Iriondok. Zorionak, marigorringo!

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com - facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Ametz eta Sugar (755. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenen jaso dezakezue lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Zorionak, **Izei**, birramama, amama, aittitte, izeko-osaba eta Lur txikiaren partez. Ondo paseu Lanzaroten eta bueltan pastel gozoa prepareu.



Marlek 12 urte betetzen ditu gaur. Zure gurasoen eta arrebaren partez **MUSU HANDI BAT**. Gure txapelduna!

Eguraldia

ZAPATUA 22° / 7°



ASTELEHENA 15° / 7°



EGUAZTENA 12° / 3°



DOMEKA 20° / 7°



MARTITZENA 12° / 7°



EGUENA 13° / 6°



“Internet bidez botoak jasotzeko lagun guztiak dantzan jarri ditugu”

Martin Arrasate tximino mozorrotu zen, eta Gorka Madrazo berriz, katu; ANBOTOk argazki lehiaketa irabazi dute

Martin Arrasate Iriarte (Durango, 1997)
Gorka Madrazo Ortuzar (Durango, 1987) •
 Inauterietako argazki lehiaketako irabazleak

AKUILUA • JONEGUENETXEA

Inauterietako ANBOToren argazki lehiaketan, pertsona kutsua duten animalien seikoteak 300 boto jaso ditu. Zumaiaiko Zelai talasoterapia hotolean lagun birentzako egonaldia irabazi dute. Martin Arrasate, Gorka Madrazo, Ipar Abasolo, Oihana Etxeberría, Unai Aregita eta Aritz Lasarguren dira irabazleak.

Zelan bururatu zitzaizuen animalia mozorrotzea?

Gorka: Zelebrea izan da. Iaz, buzoe-kin animalia jantzita joan ginen batzuk. Buzo horiek erabiltzearen, animaliak eurak ere mozorrotzea bururatu zitzaigun. Ganbaretan topatutako elementuak jarri genizkien: batatxo bat, traje bat...

Mozorrozeak zarete?

Gorka: Ni oso zalea naiz.

Martin: Niri asko gustatzen zait mozorrotuta egotea, baina mozorrotzearen aurreko prozesu guztia, ez. Gaia pentsatzea, arropa bilatzea, prestatzea... Horrek agobiatu egiten nau. San Faustoetan eta inauterietan, mozorrotu aurreko egunean desesperatuta aurkituko nauzu beti. Beste aldean, Gorka daukat; jin eta jan gara.



Berba bitan

• **Pelikula bat?**

Gorka: 'El Ángel'

Martin: 'Odja'

• **Hondartza ala mendia?**

Gorka: Hondartza

Martin: Hondartza

• **Zinea ala antzerkia?**

Gorka: Antzerkia

Martin: Zinea

• **Mania bat?**

Gorka: Oso perfekzionista

Martin: Testurak ukitzea

Amets bat?

Gorka: Hasitako bidaia bat

Martin: Eguraldi txarra lo

nagoela baino ez egitea

Gorka: Bai, ni kontrakoa naiz. Beti egoten naiz aurretik pentsatzen eta prestatzen.

Aurpegia primeran marraztu zenuen. Nor da artista?

Gorka: Goizean nire etxean elkar-tu ginen eta han denak margotu nituen. Pinteresteko argazkiei begiratuta pentsatu nuen zelan margotu.

Martin: Gorkari oso eskertuta nago, aurpegia margotu barik nire mozorroa oso ohikoa izango zelako. Makillajeak joko handia ematen dizu. Esate baterako, nire aita bost minutu egon zen nigaz berbetan, nor nintzen jakin barik. Bestalde, taldean animalia

guztiak jarrita, irudia bitxia zen. Bata nerabea, bestea borrokalaria... Nahaste polita zen.

Scooby Dooren taldeagaz lehia bizia izan duzue, baina, azkenean, zuek irabazi duzue.

Gorka: Anaiaren taldeagaz pike apurtxo bat izan dugu, baina, tira, iaz eurek irabazi zuten.

Martin: Saria bera baino, irabaztea gura genuen. Internet bidez botoak jasotzeko, lagunak dantzan jarri ditugu. ANBOTOn esan ezin ditugun estrategiak erabili ditugu.

Saria pertsona birentzako egonaldia da. Sei zarete taldean...

Gorka: Elkarrizketa-
ra gu etorri ba-
gara, justuena
gu biok joa-
tea izango
litzateke
(barrez).



Lau hortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea



Non dago zoriontasuna?

Jaiotzen garen egunetik denok bilatzen dugu zoriontasuna, baina askorentzat ez da baxterre erraza izaten berarekin bat egitea. Pertsona bakoitza mundu desberdin bat gara eta helburuak eta neurtzeko mailak guztiz desberdinak izaten ditugu.

EGBko umeak garenok gauza material gutxiarekin konformatzen ginen, ez baitzegoen hautatzeko aukera handirik. Eskola bukatu ondoren, neska eta mutilak eskolatik etxerako bidean isildu gabe genbiltzan eta auzora heltzen ginenean ogitartekoa jan eta jo ta ke jolasten aritzen ginen: harra-paketan, balón quemado, inkera, futboleko edo koloniak egiten. Ohartu gabe arratsalde itzaltzen zen eta denok etxera. Gure bizitza oso arrunta, baina zoriontsua izan zen.

Gaur eguneko bizitzan aukeratzeko eskaparatea bukaezina da eta zaila izaten dute edo dugu, eta zalantza handiak aukeratzeko orduan, eta laster aspertzen gara eta beste gauza bat aukeratzeko dugu, eta gero beste bat eta gero beste... Ase ezinik dabilta edo gabiltza.

Ez da zorionsuagoa gauza asko dituen, gauza gutxi behar dituen baino, hor dago benetakoz zoriontasuna.

Ni oso zorionsua naiz umei irakasten, liburu on bat edo egunero egunkaria irakurtzen, laguntza bila datozenei entzuten eta egoki aholkatzen, goizero astiro-astiro paseotxo bat egiten, lagunekin solasaldi luzeak izaten.

Ez da urrutira joan behar zoriontasunaren bila, hor bertan dago, eguneroko gauza txikitian, eta askotan ez gara ohartzen.

Azter ezazue zuen ingurua eta ikusiko duzue nola duzuen zain zoriontasuna.



maristak

Ikastetxea - Durango

etorkizun oso bat

www.maristak.com

946810058
www.maristak.com

Batxilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak,
Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarrizko Lanbide Heziketa,
Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza



ATE IREKIAK
Martxoak 27
 Asteazkena
 18:00-20:00

Batxilergo
 Aurrematrikulak
 Maiatzak 2tik 14ra